

# uk

232. zenbakia / 2013ko maiatzaren 6a



# URTEAN 20€

**Urtean** UK aldizkariaren 20 zenbaki  
**Urte osoan** Uribe Kostan gertatzen denaren barri  
**Urte osoan** eskualdeko euskarazko aldizkari bakarra zure etxean  
**Urte osoan** argazki zahar eta barriak  
**Urte osoan** zure proiektuak lau halzetara  
**Urtean** 20 euro

**uk**  **Harpidetu eta jaso UK zure etxean, hamabostero. Urtean 20 euro.**

[www.ukaldizkaria.biz](http://www.ukaldizkaria.biz) [neuk.ere.gura.dot](mailto:neuk.ere.gura.dot) **UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA UK 94 491 13 37 UK uk@aldizkaria.biz**

**Dacia Duster**  
10.200€ - tik aurrera<sup>1</sup>



**Dacia Lodgy berria**  
9.200€ - tik aurrera<sup>1</sup>



**Zatoz Dacia Dokker berria ezagutzera**

**3urteko<sup>2</sup>**  
bermeo edo  
100.000 km

**Dacia Duster:** kontsumo mistoa (l/100 km) 4,8tik 8,0ra arte. CO<sub>2</sub> emisioa (gr/km) 126tik 185era bitartekoa.  
**Dacia Lodgy:** kontsumo mistoa (l/100 km) 4,2tik 7,1era arte. CO<sub>2</sub> emisioa (gr/km) 109tik 165era bitartekoa.

**BILBO BERRI** JON ARROSPIDE, 20. TEL 94 448 39 00. DEUSTU · [www.bilboberri.com](http://www.bilboberri.com)  
**LEIOA BERRI AUTO** IPARRAGIRRE HIRIBIDEA, 94. TEL 94 480 42 90. LEIOA · [www.renault.es/concesion/leioaberri](http://www.renault.es/concesion/leioaberri)

**UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA**

**ARGITARATZAILEA:** Boluntzarreta Elkartea  
**HELBIDEA:** Martikoena 16, 2. solairua 48992 GETXO  
 e-mail: [uk@aldizkaria.biz](mailto:uk@aldizkaria.biz) / Posta Kutxa 171 / Tf. 944 911 337  
**ZUZENDARIA:** Irantzu Sagaminaga  
**ERREDAKZIOA:** Zuberora Iturburu, Julen Nafarrate, Nerea Gujarrubia, Irantzu Sagaminaga  
**FOTOGRAFIA:** Asier Mentxaka  
**TESTUEN ORRAZKETA:** Ziortza Vega  
**KOLABORATZAILEAK:** Jorje Perez, Bittor Egurola, Fredi Paia, Armando Llamas, K. Olate, Amaia Arriaga, Pedro Garcia Larragan, Aritzta Bergara, Algortako Bertso Eskola eta Bizarra Lepoan Euskara Elkartea  
**MARRAZKILARIA:** Dogan Gozel  
**PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA:** Erika Martinez (944 911 337)  
**FILMAZIOA:** Parima Digital S.L. / **INPRIMATEGIA:** GESTINGRAF  
**LEGE GORDAILUA:** BI-1878-00  
**ISSN:** 1576-6799  
 © Boluntzarreta



**ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK**

## Non zer

4. PLAZA.
5. IRUDIA. Plentzia TB-k 25 urte; Juanant Aramburu gogoan.
6. FACEGUK. Monarkiak etorkizunik izan beharko luke?
7. LEHEN ETA ORAIN. Algortako geltokia.
8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
11. ERRETRATUA. Patricia Alvarez Rueda.
12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopela 20. Berango 22. Gainontzeko herriak 23.
25. AGENDA.

**SAKONEAN**

26. ALBUMA. Txinga-erute errekorra Sopelan.
28. ARGAZKIA. Bonbardaketa Areetan.
30. BERBETAN. Luismi Uharte.
34. FOTOGRAFIA. Naiara Goikoetxea.
40. SAKONEAN. *Uribe Kostako Bertsoari (1900-1980)* liburua.

**KULTURA ETA AISIA**

42. ZINEMA. *160 metros. Una historia del rock en Bizkaia* lana.
43. MUSIKA. Zaramaren disko barria.
44. LIBURUAK. Argi-Hizkiak lehiaketa.
45. KIROLAK. Esteban Gaubeka.
46. MUNDUKATUAK. Irati Perez Artze.
47. JENTILKOBA. Jentilak.

**AMAITZEKO**

49. PINTXOTAN. Pikilo-krema eta gaztaia.
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. El Pino (Hezetasuna auzoa), 1974.
54. AITORMENAK. Odei Barroso.

Azala: Naiara Goikoetxea

[www.ukaldizkaria.biz](http://www.ukaldizkaria.biz)




30 Luismi Uharte

**Berbetan**

Plentzia eta Iruñea artean bizi den EHUko irakasle-ikertzaileagaz berba egin dugu Mexikoz, Venezuelaz...



11 Patricia Alvarez Rueda



46 Odei Barroso

## aldizkaria etxean jaso gura baduzu

**HARPIDETZA** > bete azpiko fitxa eta guri bidali

Izena..... Deiturak.....  
 Kalea/zenb..... Herria.....  
 e-mail.....  
 Telefonoa..... Mugikorra.....

**Urtero**  20 euro  30 euro  50 euro  
 beste kopuru bat ..... euro

**Kontu zenbakia (20 digito)**  
 □□□□ □□□□ □□ □□□□□□□□□□

## Armando Llamosas

> arkeologoa

# Hondakinari gorazarre

**Gure inguruko** ondarearen arazo nagusiak, eztabaidagarrienak, Punta Begoña eta Galeako gotorlekua dira. Bat gatoz guztiak: primerako kultura-ondarea dira. Adostasuna adostasun, noizean behin, horiei buruzko eztabaida, kritika edo dena delakoa pizten da. Txistea ematen du, baina ondare-arazo horietarako konponbide guztiak, eta esku-hartzeko asmo guztiak, beti izan dira ostalaritzaren bidez. Behin ostalaritza-enpresariak ihes eginda, udaleko esku-hartzea eta ideia guztiak ere enpresari horiekin joan dira. Getxon, beraz, ondareak eta ostalaritzak (luxuzkoa zein herrikoa) lotura itzela dute, hain itzela da ezen, ostalaritarik gabe, ondarearen biziraupena ezinezkoa ei den.

Berrerabiltzeko politikak funtsezkoak dira kultura-ondarearen tratamenduan. Jakina da, eta bere onurak eztabaidatik kanpo daude, erabiltzen dena mantentzen da, eta irauten du. Horrek, ordea, ez du esan nahi, beti eta derrigorrezkoa izango denik, gero eta gutxiago aipatutako bi kasu horietan, eta are gutxiago ostalaritzarekin. Punta Begoña zein Galeako gotorlekua hondakinak dira, eta, edozein funtzio betetzeko, konpondu behar dira. Hala ere, hondakin horiek ez dute zerikusirik eraikin itxi batekin (jauregi batekin, adibidez). Bi egiturak oso sinpleak dira, oso funtzionalak. Inguru biak, askotan, jendez beteta daude, publikoak ez da eraman behar (izan ere, batzuetan uxatu behar da). Biak itxi litezke erraz. Biak daude hirigunean, erraz kontrolatzeko eta behar diren azpiegiturak eramateko (ura, argindarra...). Bietan bere egungo egoera mantentzeko lan gutxi behar dira (ostalaritzarako baino askoz gutxiago). Eta, amaitzeko, biak egun dauden bezala utz ditzakegu, etorkizunerako utz dezakegu, hau da, bere jatorriz izan zirena mantenduz.

Lanak gutxi dira: Konpondu erortzearen elementuak (arriskua sortzen dutenak); garbitu gunea; gotorlekuko barrukoak lorategi bezala kudeatu; itxi kontrolik gabeko sar-



bideak (gazteluan amildegikoa ere bai); amaitzeko, udaltzaintzak, edo dena dela, itxi ditzala ateak ordu batean. Kameraz zaindu, nahi baduzu, amoranteak eta botiloiak saihesteko.

Hori garestia da? Edozein parke beste. Modu horretan, getxoxtarrok irabaziko ditugu ondarearen bi elementu itzel eta ibiltzeko bi gune eder. Gainera, kanpotarrek, ditzosozko turistek, bi gune bitxi, des-

berdin eta pertsonalitatedunak disfruta litzakete.

Gogoratu behar da bisitatzen den hondakina monumentua dela, hesi baten atzean dagoena, aitzitik, hondakin hutsa. Gure ondarea kudeatzeko beti ez da jarri behar taberna bat, taberna dotorea izan arren; batzuetan, igeltseroa eta borondatea besterik ez dugu jarri behar. Gainera, zein politikak diren hondakin biak! ○

## gu geu

## UK saltsa!

*“Apirila euritsu, maiatza ihitsu, ekaina errautsu, orduan da laboraria urgulutsu”, “Lorarik ederrena, Maiatzeko antxobia”, “Maiatza, urte guziaren ardatza”, “Maiatzean kukuak kuku, diruz banitu bi zaku” e.a. Sopolako Esaera Zaharren Txapelketaren osteak eroan gaitu hil honi eskainitako atsotitzen bila... Atzo, gaur eta bihar ere baliagarri izango zaigulakoan baten bat. Eta hala, hainbat “atzerabegirako” (Azalean, Lehen/Orain, Fotografia, Sakonean, Zinema ataletan e.a.) jasotzen ditu oraingo UK honek, eta horien alboan, herri bakoitzari dagozkion orrialdeetan zenbait “aurrerabegirako” hitzordu eta ekitaldi interesgarri ere... Uribe Kostako herrietan barna ibili gara, eta uribekostarren eskutik munduan zehar (Argentina, Mexiko, Venezuela e.a.) ere bai...*

Betiko legez, gure bidean... UK saltsa doinu-zaporeagaz gozatzera gonbidatzen zaitugu!

UK-ko lan-taldea



PLENTZIAN, APRILAREN 27AN

**Juanant Aramburu gogoan...** / Plentzia Telebistak 25 urte bete ditu, 1987ko udal-hauteskundeen barri emateko jaio zen-eta. Juanant Aramburu zena ibili zen sortzaile eta, orain, estudioari bere izena ipini diote, Plentzia Telebistaren eta herriaren alde egindako lan guztia eskertzeko. Tokiko telebistaren helburua da “herriaren parte-hartze aktiboaren zerbitzura egotea eta komunitatearen dinamizazioan laguntzea”. Horregatik, urteurrenagaz Plentziako herriari eskertu gura diote “bere laguntza ordainezina, euren babesik gabe ezinezkoa zatekeelako amets hau errealitate bihurtzea”. Urte askotarako! ○ / Argazkia: Ane Basagoiti

Auzokideen iritzia jakin gura duzu? Herrietan pil-pilean dauden gaiak, galdera umoretsuak, eztabaida sor ditzaketenak... Idatzi galdera **gure facebook**-en eta zeure partez luzatuko dugul!

# Monarkiak etorkizunik izan beharko luke?



Algorta

## Itziar Bustingorri

> hezitzailea

Monarkiak ez dauka etorkizunik, eta une honetan ateratzen ari diren eskandalu guztiak; ustelkeria kasuak, berbarako, oso egokiak dira erakusteko instituzio horrek ez duela etorkizunik. Eta horrek, benetan, poztan nau.



Algorta

## Veronica Aniel

> filologoa

Ez, nik uste dut monarkiak gizartean ez daukala lekurik, ez baitu ezertarako balio. Gainera, herritarrok monarkia-ri diru gehiegi emoten diogu, eta hori ez da zilegizkoa. Izan ere, nire ustez instituzio horrek ez dio ekarpenik egiten gizarte-ari, eta esan bezala, ez du ezertarako balio.



Sopela

## Xabier Gartzia

> jubilatua

Nik neuk anarkistatzat daukat neure burua; hortaz, monarkia gorrotu dut. Bizi garen ustezko demokrazian ez genuke monarkiarik beharko; gastu handia da eta. Bestalde, hori gutxi balitz, Espainiako erregea lapurra eta gonazale amorratua da.




Algorta

## Amaya Martin

> irakaslea

Gertatzen ari dena ikusirik, uste dut monarkiak desagertu beharko lukeela. Garai batean herriko ordezkariak baziren ere, orain jarraitzeak ez dauka baterantz zentzurik. Egiten ari direna kontuan hartuta, kartzelara joan beharko lukete; izan ere, lapurren moduan jokatu dute, eta zigor egokia ezarri behar zaie.



Erandio

## Alain Ortiz

> teknikari laguntzailea

Beti nahi izan dutena hartu dute, beti lapurtzen ari dira; horregatik, desagertu beharko lirake. Eta ez badira desagertzen, behintzat, herritarrok emoten diegun dirua kendu beharko lirateke, azken finean, daukaten botere ekonomikorik gabe utzi. Lotsagabe hutsak dira!



Arrieta

## Karmiña Kaballero

> irakaslea

Nik neuk beti pentsatu dut: nork aukeratu du monarkia? Instituzio hori inoiz ez da herriaren ordezkari izan; izan ere, inoiz ez da hauteskunderik egin, herriari monarkia nahi duen galdetzeko. Historian zehar, beti ustelkeria kasu asko gertatu dira; zenbat diru-irabazi izan ete ditu erregeak urte hauetan zehar?



[lehen]



[orain]

## Iraganez doa denbora\* beti / ALGORTAKO GELTOKIA

\* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

## uribitakora &gt; udaberri aldera



Sopela, 2013ko apirila

Testua: **Ekaitz Larrazabal "Katxo"**  
Argazkia: **Ane Basagoiti**

## 1

Udaberri aldera  
loraldia dator  
kolorez betetzen da  
zelaiko hainbat alor;  
lore-hautsak gainezka  
egin du hemen-hor  
alergiaz gaixotu  
daiteke edonor,  
baina atera gabe  
ezin da lotu inor.

## 2

Zenbat egoten garen  
lorei begira!  
Lili mota ugari  
ernatzen ari da  
lehenik gimnasia,  
gero plaza erdira;  
egokitu nahian nor  
bere bikinira,  
garaiz batu ezean  
zimelduko dira.

## 3

Baina batzean kontuz!  
Arantzak baitaude  
ebaki gaitzke, ta  
gero jarri grabe;  
denok egin nahi dugu  
ale ederran jabe,  
udaberrian uzta  
galtzeko ez gaude:  
zeuk be premia duzu  
ta zeren zain zaude?

\* Doinua: Asteburu aldera

Uribitakoran parte hartu gura duzu? Bidal  
egiguzu atal honetan agertzea gura  
zenukeen argazkia eta bertan  
ikusiko duzu, bertso eta guzti!  
uk@aldizkaria.biz

## Eskubideen marean &gt; hartu 3 olatuak



Hilaren 11n egingo da martxa

“Eskubideen marean maiatzaren 11n Uribe Kosta kalera!” lemapean Enplegu duin, Eskubide Sozial eta Ondasunen banaketaren aldeko Uribe Kostako Koordinakundeak martxa antolatu du. Urduliz eta Erandio izango dira irteera-guneak, goizeko 10:30ean, eta ibilbidea Algortan amaituko da, 13:00etan Telletxe plazatik irtengo den manifestazioagaz. Uribe Kostako langabezia-tasaren datuak, sare in-

dustrialaren desagertze-egoera, etxebizitzaren prezio altuak, erakundeen murrizketen aldeko hautua, inguruetan bizi eta izugarriko irabaziak metatzen dituztenen izen-abizenak eta beste hainbat informazio jasotzen duen eskuorria banatu dute, eta horren albotik, euren aldarrikapenen dekalogoia jasotzen duen idatzia ere bai. Ondoko helbidean kontsultagai: ○

Info+: [uk3olatuak.tk](http://uk3olatuak.tk)

## berbaldiak &gt; Pako Aristi eta Kirmen Uribe

**Hil honetarako** euskararen edo euskal literaturaren inguruko hainbat hitzaldi iragarri dituzte, ondoren Sopelan eta Algortan antolatuko dituzten batzuen barri duzue. Alde batetik, Sopela solasean hitzaldi zikloa abiatu dute Sopelako Udalak eta Euskara Zerbitzuak, horren baitan hitzordu bi: bata, maiatzaren 23koa (19:00, Kurtzio kultur etxean), “Euskararen motibazioak eta jarrerak” izango da, Eibarko

Eta Kitto! elkarteak emango duena; bestea, maiatzaren 29koa (19:00, Kurtzio kultur etxean), “Euskara, hizkuntza bat bere bakardadean” izenburupean Pako Aristi idazleak eskainiko duena. Bestetik, Algortan, Uribe Kostako Irakurzaleen Txokoko maiatzeko zitara Kirmen Uribe gonbidatu dute, *Mussche* kaleratu duen azken lanaren gainean jarduteko (hilak 23, 20:00; Aldai patronatuan). ○



Kirmen Uribek hitzaldia emongo du Algortan

## lehiaketa &gt; Basartena film laburren jaialdia

Info+: [www.basartena.com](http://www.basartena.com)

**Urdulizko** Basartena tabernako buru, aktore eta zinema zale Patxi Basartek aurren ere martxan ipini du Basartena film laburren lehiaketa. Maiatzaren 16ra arte bidal daitezke DVDak (Basartena Taberna; Elortza kalea 19, Urduliz). Edonork (ez dago adin mugarik) parte har dezake lehiaketan, eta Euskal Herriko zinema eskolek ere bai. Filmek 25 minututik behar-iraupea izan beharko dute, eta eus-

karazkoak zein gaztelarazkoak izan daitezke. Uztaile amaierako jaialdian erakutsiko dituzte eta jakinaraziko dituzte Koldo Serra, Borja Crespo, Aitor Elorriaga, Amaia Nerekan eta Patxi Urkijok osatutako epaimahaiak hautatutako lan-irabazleak. Fikziozko eta animaziozko lan onenek 600 euroko sariak jasoko dituzte, zinema eskolen arteko lan onenak 300 euro eta euskarazko lan onenak ere 300 euro. ○

**saiazgetaria**



HOTELA

Roke Deuna 25  
20808 Getaria  
Gipuzkoa



...harria

...lehengo garaiak...

...itsasoa

[www.siazgetaria.com](http://www.siazgetaria.com) / [info@siazgetaria.com](mailto:info@siazgetaria.com) / Tf. (+34) 943 140 143



### Uztailaren 15etik 26ra

Ur ekintzak, abentura kirolak, mendi ibilbideak...

Izena emateko:

- Izen emate orria beteta.
- Diru sarreraren ordainagiria (EK 3035 0108 06 1081032766)
- Epea: maiatzaren 24ra arte

Prezioa: 245 €

Bazkideak: 200 €

# Udaleku Ibiltariak

## Udaleku ibiltariak Bortzirietan 1999-2000-2001 jaiotakoentzat Hernaniko gazteekin!!!

**Bizarra Lepoan euskara elkarte**  
Martikoena kalea 16, 2.solairua  
94 491 03 87 / [www.bizarralepoan.org](http://www.bizarralepoan.org)  
[info@bizarralepoan.org](mailto:info@bizarralepoan.org)



### Euskaraz ondo egiten duten umeentzat

**TOKIA:** 1. Aldai Patronatua; 2. eta 3. Romo, I.B. Zabala (8-12 urte) eta San Nikolas ikastola (5-7 urte).  
**NORENTZAT:** 5 eta 12 urte arteko ume euskaldunentzat.

### Euskaraz komunikatu ezin direnentzat

**TOKIA:** 1. Aldai Patronatua; 2. eta 3. Romo, I.B. Zabala (8-12 urte) eta San Nikolas ikastola (5-7 urte).  
**NORENTZAT:** 5 eta 12 urte arteko ume erdaldunentzat.

**PREZIOA:** Bazkideek 1. txandan 40 euro, 2. eta 3. txandan 80 euro txanda bakoitza. Bazkide ez direnek 1. txandan 55 euro, 2. eta 3. txandan 110 euro txanda bakoitza. Getxon onarritako errenta jasotzen dutenek \*20 euro txanda bakoitza.

**IZEN EMATEA:** Ingresoaren ziurtagiria eta osakidetzako txartelaren kopiaekin batera bulegora etorri eta inskripzio orria bete eta sinatu behar da (gure blogetik jaitsi daiteke eta soilik gurasoak edo tutore legalak sinatu dezake). Euskadiko Kutxa 3035 0108 06 1081032766. **EZIN DA TELEFONAZ EZ POSTAZ EGIN.**

**IZEN EMATE EPEAK:** Bazkideentzat maiatzaren 13tik 15era (biak barne) eta bazkide ez direnentzat maiatzaren 20tik 22ra (biak barne).  
**IZENA EMATEKO ORDUTEGIA:** egunero 10:00-13:30; eta astelehen eta asteazkenetan ere 17:00-18:30.  
**Ez da onartuko ordutegitik kanpo ekartzen den orririk.**  
**Izen emate ordenean onartuko dira eskaerak.**

**Bizarra Lepoan** Euskara Elkartea, Martikoena kalea 16, 2. solairua - 4. bulegoa, Algorta  
**Kontakturako:** 94 491 03 87 | [www.bizarralepoan.org](http://www.bizarralepoan.org) | [info@bizarralepoan.org](mailto:info@bizarralepoan.org)

**Info +:** eskuorrietan (kultur etxeetan, liburutegietan, kiroldegietan...)

\*Diru kopuru bat egongo da pertsona horiek diruz laguntzeko, diru kopuru hori agortu arte banatuko da izen emate ordenean. Ekarri beharrekia: Aldundiaren ziurtagiria eta NANaren fotokopia.

# BAPIRUKE

## UDALEKU IREKIAK

1. Ekainak 25-28 | 2. Uztailak 1-12 | 3. Uztailak 15-26

**BIZARRA LEPOAN:**  
GETXONKO EUSKARA ELKARTEA GARA  
ETA 16 URTE DARAMATZAGU EUSKARAREN  
ERABILERA SUSKATZEN. BAPIRUKE, GEHTU  
KIRIOLA ETA GEHTU KULTURA DIRA GURE  
EGITASMO NAGUSIAK. HERRIKO  
EUSKALTEGIEKIN BATERA  
EGUZU ELKARTEA OSATZEN DUGU.

WITLABOIA  
BIZARRA LEPOAN

LAGUNTZEA:  
**9e+1** GETXONKO  
KIRIO ELKARTEA

MEZUA:  
Getxo, Bazarra, Bazarra, Bazarra



"Gure eskubideen alde borrokatu behar dugu: pentsioak murriztu dizkigute, botikak kendu..."

## Patricia Alvarez Rueda > Pentsionistak ere... martxan!

**Kartetan aritzea**, txangoak antolatzea edo bingo partidak jokatzera. Horregaz lotzen du jende askok erretiroa: atsedean hartzeko sasoi. Baina besterik ere bada. Horren erakusle dugu Patricia Alvarez leioztarra: "Jendartean zabaldu da nagusiek aisialdi-jarduerak bakarrik egin behar dituztela. Hori ez da horrela. Aktibo egon behar dugu!". Filosofia horri helduta, orain hiru urte Alvarezek Pentsionistak Martxan elkarte sortu zuen, beste kide batzuek batera: "Aurretik zeuden pentsionista-elkartek ez zituzten gure beharrak asetzen". Izan ere, lan mundutik kanpo egon arren, aldarrikatzeko arrazoi ugari dituztela uste du Alvarezek: "Gure eskubideen alde borrokatu behar dugu: pentsioak murriztu dizkigute, botikak kendu...". Bere iritziz, krisiak egoera okertu du, eta badira kinka larrian bizi diren hainbat lagun: "Pensio baxuak jasotzen dituztenak eta emakumeak dira kaltetuenak. Emakumeek errenta baxuagoak dituzte lanaldi erdian lan egin dutelako, edo lan bera egin arren soldata baxuagoa jaso dutelako...". Honi aurre egiteko, mobilizazioak beharrezkoak direla uste du Alvarezek: "Maiatzaren 30eko greba orokorragaz ere bat egingo dugu". Leioztarrak urte asko daroa pankartari eusten, aurretik ere herri-mugimenduan lanean ibili baita, baina ilusioz jarraitzen du: "Oso pozik nago, besteei laguntzeko modu bat delako... eta neure buruari ere bai".

Testua: **Julen Nafarrate** Argazkia: **Ane Basagoiti**

# Ez zaitez marmartia izan!

**Zurrumurrueen kontrako proiektua abiatu du Udalak kultur aniztasunari buruzko estereotipo negatiboak indargabetzeko: zurrumurrueen kontrako agenteek garatuko dute**

Topikoak aintzat hartu, aurreiritzia sortu eta diskriminatu, horixe ei da ohiko eskema. Zurrumurruek estereotipo negatiboak zabaltzen dituzte eta, beraz, ekiditeko, ekimen barrizalea abiatu du Getxoko Immigrazio Zerbitzuak: **“zurrumurrueen aurkako agenteen”** bitartez garatuko du.

**Zurrumurrueen** kontrako estrategiaren esperientzian oinarritutako komunikazio eta sentiberatze programa aitzindaria sustatuko du Immigrazio Zerbitzuak, Bartzelonako esperientzia batean oinarrituta. Open Society Fundazioaren arrazakeriaren eta xenofobiaren kontrako programaren barruan garatuko dute, eta RECI-Hiri Interkulturalen sarearen jardueren adibideetako bat da.

Proiektuaren asmoa da, zehazki, **“zurrumurrueen kontrako agente”** sarea osatzea, zertarako eta immigrazioari zein kultur aniztasunari buruzko estereotipo negatiboak, topikoak eta zurrumurrue faltsuak indargabetzeko: **“Interakzioa eta bizikidetzazko oztopatzen dute eta, gainera, jarrera diskriminatzaile eta xenofoboak eragin ditzaizkete”**. Izan ere, **“topikoek zein estereotipoek hainbat jatorri dituzte, eta bide desberdinetatik zabaltzen dira, baina argi dago ahoz-ahozkoaren indarra oinarritzakoa dela”**.

Beraz, agenteek zurrumurrue eta topiko horiek identifikatu eta aztertuko dituzte, horren ostean ikuspegi kritiko eta zorrotzak indargabetzen saiatzeko. Horre-



Apirilaren 26an aurkeztu zuten egitasmoa Algotako kultur etxean

la, benetako komunikazioari lagunduko dioten tresnak, eta komunikazio eta psikologia trebetasunak ere eskaini gura ditu Immigrazio Zerbitzuak.

Alor desberdinetako eragile sozialen ordezkariaz osatu gura dute agenteen

**“Eragile sozialen ordezkariaz osatu gura dute zurrumurrueen aurkako agenteen sarea”**

sarea, herritarrengan eta talde berezituengana eragin dezaten (auzokideak, berdintasuna, euskara eta euskal kultura, kirola, garapena, gizarteratzea, kultur arteko-tasuna, artea eta antzerkia, e.a).

Hasieran partaideek maila pertsonalean parte hartuko dute, **“proiektuaren baliabideen arabera”**. Proiektuaren ardu-

radunen iritziak, **“xenofobiaren kontrako borrokan udalerrira oinarritzakoa da, herritarrenganako hurbiltasun handieneko maila da-eta; Udalak pertsonengan eragin zuzenagoa eduki dezaketenez harremanak sor ditzake”**.

BEGIRUNEK garatuko du, EHuko Soziologia Fakultateko Immigrazioaren Ikerketarako Laborategiak. Bere partaidetzagaz, hain zuzen ere, proiektuaren metodologia orokorra Getxoren eta agenteen berezko ezaugarrietara egokituko du. Gainera, bestelako eragile sozialen eta erakundeen hainbat ekimenegaz ere harremanak garatuko dituzte proiektuan zehar. Apirilaren 26an aurkeztu diote egitasmoa herriko eragileei eta hemendik aurrera lanari ekingo diote. ○

Info+: [www.getxo.net/antirumores](http://www.getxo.net/antirumores)

## Sanisidroak ate joka!

Maiatzaren 15etik 19ra dira Getxoko jaiak



Malakaten eta Kiroldegi alboko aparkalekuan izango dira ekitaldi gehienak

**Badatoz jaiak!** Maiatzean sartu gara eta hemen dira Andra Mariko sanisidroak. Maiatzaren 15etik 19ra izango dira ekitaldi nagusiak, baina 11n hasiko dira auzoa giroten Itxas-Argia taldearen jaialdiagaz, kiroldegian. Eta eguaztena 15ean erabat sartuko dira jaietan.

Eguerdian meza egongo da, baita mokadutxoak jatea eta aurraskua ere. Arrastiko 17:30ean, barriz, idi-probak probalekuan. Eguenean atsedean hartuko dute getxoitarrek eta, barikurako, ekitaldi andana prestatu dute 17:00etatik aurrera: ko-reografia-erakusketa, umeentzako jolasak eta txokolate-jana Malakaten, eta graffiti erakusketa eta mus-txapelketa La Ventan.

Gauean, barriz, kiroldegiko aparkalekuan izango dira kontzertuak: 21:00etatik aurrera joko dute Atadxs a nada, Solte

eta Matxura taldeek. Baina formal ibili behar, biharamunean 09:00etan hasiko delako *Betiko Getxo* ibilbide toponimikoa, gainera bizikletaz: elizan ipini dute hitzordua. Beranduago izango dira puzzle lehiaketa, puzgarriak, buruhandiak eta fanfarrea Malakaten, eta 15:00etan herri-bazkaria aparkalekuan.

Arrastirako utziko dituzte igel-txapelketa eta poteoa, eta gauerako kontzertuak, 21:00etarako: Hamaiketan, Trikizio eta DjBull arituko dira taula gainean.

Eta, esan bezala, domeka 19an amaituko dira jaiak. Goizeko 10:00etan ekingo diote txahal bat erretzeari aparkalekuan, azoka hasteagaz batera. Eguerdian, barriz, herri-kirol erakustaldia izango da eta 17:30ean kontzertua, Dingiliske taldeagaz. Ondo pasa eta ez pasa! ○

## IÑAKI GONZALOREN ASKATASUNA ALDARRI

Maiatzaren 4an urten behar zuen kartzelatik Iñaki Gonzalo Casal *Kitxu* Romoko bizilagunak. Epailerek, ordea, 197/2006 doktrina aplikatu diote eta beste 11 urte egin ditzake espetxean. Horregatik, *Kitxu* askatzeko eskatu eta mozioa aurkeztu dute udalean hainbat eragile sozialek: **“Euskal preso politikoen kontrako salbuespen neurriak bertan behera uztea nahi dugu, funtsezko eskubideak urratzen baitira. 197/2006 doktrina eteteke, eta *Kitxu* eta neurria aplikatutako beste presoak aske uzteko exijitu dezala eskatzen dugu”**. beste ekimenen artean, kanpaldia egingo da maiatzaren 17tik 19ra.

## ETXEGABETZEEN AURREAN PROTOKOLOA

Etxegabetzeak prebenitzeko, eta horien egikaritzeak ukitutako pertsonak artatzeko jarraibideak bildu ditu Udalak, protokolo batean, Eusko Jaurlaritzak, EUDEL eta beste erakunde batzuek elkarlanean. Bertan zehazten da Gizarte Zerbitzuak, KIUB eta Udaltzaingoa egin beharrekoak. Udalak aurreikusten dituen neurri eta mekanismoen artean Oinarrizko Gizarte Zerbitzua dago eta, etxegabetzeen kasuan, beren zereginen artean dago herritar horiek informatzea eta laguntza bideratzea hainbat arlotan.

Info+: [www.getxo.net](http://www.getxo.net)

## LAGUNTZAK GIZARTE LARRIALDIETARAKO

Gizarte Larrialdietarako laguntza-irizpideak onartu ditu Udalak eta 498.493 euro gastatzea baimendu du, iazko antzeko zenbatekoa. EAEko aurrekontutik dator dirua eta Udalak bere tramitazioa bideratuko du. Ondoko kontzeptuetarako zuzenduko da, besteak beste: alokairuari eta kredituen amortizazioari aurre egiteko, mantentze-gastuetarako, altzarietarako, konponketak edo/eta instalazioak egiteko, lehen mailako premietarako eta alde zuzeneko zorpetzei aurre egiteko. Eskararak aurkez daitezke azaroren 22ra arte.

Info+: [www.getxo.net](http://www.getxo.net)



Udaberri promozioa:  
*Alkandorak eta brusak 19'95€*

Ibaiondo 7, 48930 Erromo-Getxo Tf. 94 656 21 57

**Benja Barandalla Azkueta** > hezitzailea

“Mugak gainditzeko beldurrik ez baduzu garapena lortuko duzu”



Maiatzaren 17an hitzaldia eskainiko du Algortan heziketa sortzaileari buruz

**Baleube elkarteko kide da Benja Barandalla Azkueta eta sorkuntza-heziketari buruzko tailerrak emoten ditu. Maiatzaren 17an Algortara hurbilduko da, eta hitzaldi batean azalduko ditu sorkuntza-heziketaren oinarriak eta tailerren nondik norakoak. Sendi egitasmoko lagunek gonbidatu dute, baina gura duen orok parte har dezake, baina izena emon behar da aurretik: [sendigetxo@yahoo.com](mailto:sendigetxo@yahoo.com) helbidera mezua bidalita. Gaiari buruz informazio gehiago topa daiteke [www.baleube.com](http://www.baleube.com) webgunean. Kultur etxean izango da hitzaldia.**

—Sorkuntza-heziketa, zer da eta zertarako balia daiteke?

—Kontzeptu oso zabala da. Edozein arlotan aplikatzeko baldintza zehatzak dira. Sorkuntza-heziketaren oinarriak aipatuko nituzke. Batetik, tailerretako taldeak heterogeneoak direla; hau da, adin eta egoera desberdinetako pertsonen osatuta daude. Horrek eragiten du dibertsitate handia eta nork bere sortze-prozesua has-teko baldintza egokiak sortzen dira. Horrela, jendea ez da lehian sartzen: bere burua inorekin konparatzeko modurik ez

dauka, mundu desberdinetatik datozelako; bakoitzak bere lana burutzen du. Bestetik, tailerlean sortzen diren gauzak ez dira epaitzen. Oso garrantzitsua da hori, jendeak gauzak egiteko beldurra galtzen duelako, eta horixe da ikasteko modurik eraginkorrena: mugak gainditzeko beldurrik ez baduzu, gero eta gehiago gaindituko dituzu, eta garapena lortuko duzu. Helburua da gustura sentitzea eta barruan dauzkagun beharrianak asetzeta. Denborarekin konturatu gara adierazteko gure beharrianak dela, jatea edo mai-

tatuak sentitzea bezala. Beraz, pertsona bati ematen badiogu espazioa eta denbora beharrian hori asetzeko, orduan bere onurak ditu.

—Algortakoa ez da izango tailerra, hitzaldia baizik: zertaz jardungo zara?

—Heziketa sortzaileari buruz. Aipatuko dugu egiten dugun lana. Batetik, azalduko dugu tailerrak gauzatzen 20 urtetan izan dugun esperientzia. Bestetik, nire ikerketa pertsonala ere azalduko dut. Baina, batez ere, heziketa sortzailearen oinarriak aipatuko ditut.

**«Heziketa sortzailea edozein arlo eta eremutan aplika daiteke»**

—Non garatzen da heziketa sortzailea; nori zuzenduta dago hitzaldia?

—Heziketa arloko profesional bezala aritzen garenek aplika dezakegu gure klasetan, haurtzandegian, e.a. Baina beste edozein arlotan ere aplika daiteke. Oinarri garrantzitsuetako bat da hezitzailearen zeregina. Tailerretan ez dugu epaitzen, ezta zuzenketarik egiten ere: jendea ez da diogu esaten zer egin behar duen. Beraz, kasu honetan, hezitzaileen papera ezinbestekoa da adierazpena sortzeko. Guk sortzen dugun harremanak ez dauka zerikusirik menpekotasun harremanekin: jendea libre uzten dugu bera den bezala adierazteko. Eta hori edozein arlotan aplika daiteke, adibidez etxean, gurasoek seme-alabekin: askotan gurasoek inposatu egiten ditugu gauzak edo behartu egiten dugu. Hori dena kolokan jartzen da heziketa sortzailearen oinarriak aplikatzen ditugunean. Edozein pertsonari dago zuzenduta hitzaldia, arlo guztietarako balio duelako heziketa sortzaileak. Interesa sortuz gero tailerra ere antola genezake. ○

## Udaleku ibiltariak

**Gazteentzako** udalekuak **Bortzirietan** izango dira, **Hernaniko** gazteakaz batera



Argazkia: Dobera euskara-elkartea

**Proposamen barrizalea** dakar gazteentzatzat Bizarra Lepoan euskara-taldeak: Udaleku ibiltariak. 1999 eta 2001 urteen artean jaiotako gazteei zuzenduta daude eta Bortzirietan egingo dira, Nafarroan, Hernaniko gazteakaz batera.

Uztailaren 15etik 26ra izango da ekimena eta hainbat jardueratan parte hartu ahalko dute gazteek, besteren artean: ur-ekintzak, abentura-kirolak eta menditurteerak. Prezioa ondokoa da: Bizarra Lepoan elkarteko bazkideentzat 200 euro eta bazkide ez direnentzako 245 euro. Izena emon behar da maiatzaren 24a baino lehen. Horretarako, izen-emote

orria bete behar da eta dirua udalekuen banku-kontuan sartu (elkarteko webgunean duzu zenbakia). Ordainagiria eta izen-emote orriak helarazi behar zaizkio elkarteari (Martikoena 16, 2. solairua). Harremanetarako: 944 910 387 edota [info@bizarralepoan.org](mailto:info@bizarralepoan.org).

Prozesu bera jarraitu behar da 5 eta 12 urte arteko umeentzako ohiko udalekuan izena emoteko ere. Datak, barriz, desberdinak dira: bazkideek maiatzaren 13tik 15era egin behar dute, eta bazkide ez direnek 22tik 24ra. Prezioei buruzko informazioa webgunean duzu. ○

**Info+:** [www.bizarralepoan.org](http://www.bizarralepoan.org)

## TOPONIMIA-IBILBIDEAK EKAINERA ARTE

2013ko Toponimia-ibilbideak abiatu ditu, barriz ere, Bizarra Lepoan elkarteak. Toponimiatik hasita eta historia, kultura eta naturaren arloak jorratuz, proiektuaren helburua da Getxo hobeto ezagutzeko aukera izatea. Ikastetxeentzako eta herritarrentzako ibilbideak prestatu dituzte maiatzaren eta ekainean, euskaraz eta doan. Herritarrentzako ibilbideak dira: maiatzaren 18an *Betiko Getxo* (txirrindulaz), ekainaren 1ean *Hezeguneak* eta 15ean *Getxo barria*. Izena emoteko: 688 635 350 edo [getxo.toponimia@gmail.com](mailto:getxo.toponimia@gmail.com).

**Info+:** [www.bizarralepoan.org](http://www.bizarralepoan.org)

## ITXAS-ARGIA TALDEAREN HERRIEN JAIALDIA

Sanisidroak baino lehen egingo du Herrien Jaialdia Itxas-Argia Getxoko dantza-taldeak: maiatzaren 11n, Andra Mari kiroldegian. Urtero legez, kanpoko dantza talde bat gonbidatuko du beste dantza mota batzuk ere erakusteko asmoz, eta aurten Landetako talde bat izango da (Frantzia). Erakustaldia 21:00etan hasiko da.

**Info+:** [www.itxas-argia.com](http://www.itxas-argia.com)

## HITZALDIA HEZKUNTZA SUBIRANOARI BURUZ

Hitzaldi zikloagaz jarraituz, Bolibartiar Ikaskuntza Elkarteak Jakobe Palazio EHUko irakaslea gonbidatu du ondoko gaiari aritzeko: “*Hezkuntza sistema subiranoa, libre eta kolaboratiboa*”. Maiatzaren 17an izango da hitzaldia Algortako kultur etxean, 19:00etatik aurrera.

**Info+:** [www.bolibar.org](http://www.bolibar.org)

## ZABALA ESKOLAREN 100 URTEAK LIBURU BATEAN

Algortako Zabala eskolak mendea bete zuen duela pare bat urte, eta testuinguru horretan sortu zen ideia interesgarri bat: eskolaren historia liburu batean batu eta gordetzea. Apirilean aurkeztu dute horren emaitza: *J.B. Zabala eskola 100 urtez, eskola baten historia*. Goza egizu!

**lagusana**

liburuak eta letra txikia

Basagoiti etorbidea 59  
(Tellagorri plaza)  
48991 ALGORTA  
Tf. 94 491 14 12  
[gusanalibreria@gmail.com](mailto:gusanalibreria@gmail.com)



**Paula Kasares Corrales** > soziolinguista eta UPNAko irakaslea

“Nahiz eta euskaraz jakin ez, gurasoen esku aunitz gauza dago egiteko haurrak euskaraz ikas dezan”

**Euskaraz ez dakiten eta seme-alabak eskolan hasi berriak dituzten gurasoei hitzaldia emon zien Paula Kasaresek apirilaren 17an. Egoera horri aurre egiteko aholkuak eskaini zizkien eta gu beragaz egon ginen hasi aurretik.**

—Hizkuntza bat sartu da etxera hitzaldia emongo diezu gurasoei?

—Hitzaldia zuzenduta dago guraso erdal-dunei edo familia mistoei (guraso batek badaki euskaraz eta besteak ez). Helburua da ikusaraztea, behin haurra D erduan sartu dutela, ez dela hor akitzen haiek haurraren ikaste-prozesuari laguntzeko egiten ahal dutena. Hau da, euren eskuetan dagoela aunitz erabaki eta elementu haurrari laguntzeko euskara ikasteko prozesuan; oso komenigarria da horretan laguntzea. Beti galdetzen dute: “*Bainanik zertan laguntzen ahal diot haurrari ez badakit euskaraz?*”. Gakoa motibazioa da: ez dute transmitituko hizkuntzaren irakaspenera, baina bai egiten ahal dute hizkuntzari lotutako jarrerak irakatsi, eta aukerak eman haurrari euskara entzun eta egiteko: etxean euskaraz kantatzen eta jostatzen ahal da, egun aukera asko dago horretarako. Motibatze bideak emanen dizkiet, zalantzak argitzeko balioko dute.



Paula Kasares Kultur Leioan, hitzaldiaren egunean

Gurasoen esku aunitz gauza dago egiteko, nahiz eta euskara ez jakin.

—Belaunaldi honetako guraso askok badaki euskaraz, zergatik hizaldia?

—Egia da euskaraz eskolatutako gero eta guraso gehiago dagoela, eta hori ari da nabaritzen aunitz: erabat erdaldunak diren bikoteak urriagoak dira, gero arruntagoa da guraso bat bederen euskalduna izatea. Baina inguruan euskararen erabilera soziala ez bada indartsua, horre-

lako familietan nabari da euskarak ez duela bere tokia. Familia elkarbizitza linguistikoa da eta askotan ez dakigu kudeatzen. Zer da onena familia mistoan: erdaraz egitea, euskaraz noizbehinka, guraso euskaldunak beti egitea euskaraz haurraren? Guraso euskaldunak euskara ez badu erabiltzen hasieratik, Leioa bezalako tokietan, euskararen erabilera apala den tokietan, orduan euskarak ez du lortzen presentzia izatea etxean. ○

## Zatoz Lamiakora!

Lamiako **Maskarada** eta auzoko **jaiak** ospatuko dituzte **maiatz akabuan**



Maskarada hilaren 24an izango da, barikuan

**Ohi legez**, Lamiakok inauguratuko du jaien denboraldia Leioan, Maskaradagaz eta San Maximo jaiakaz. Maiatza akabuan ospatuko dituzte jaiak: 24an hasiko dira Lamiako Maskaradagaz eta hortik aurrera festa giroan murgilduko da auzoa hilaren 29ra arte.

Beraz, hilaren 24an izango da Maskarada. Arrastiko 17:30etik aurrera antzetzuko dituzte lehen eta bigarren zatia, eta gaueko 22:30ean hirugarrena, trenbideaz bestaldera, elizaren alboan.

Lehenengo zatia “puzgilearen biribilgunean” hasiko da eta handik kalejiran joango dira Maskaradaren partaideak metro geltokiraino; bidean pertsoniak batzen joango zaizkie dantzari. Jarraian

hasiko da bigarren zatia, toki horretan bertan: metro geltokiaren alboan. Marik eta Sugarrek elkarregaz dantzatuko dute eta danak batera ekingo diote barriro ere bideari, kalean aurrera eginez, kantuan eta dantzan.

Baina ez da horrela amaituko Maskarada, izan ere, gauean kontatuko dute Prudentziaren historia, hau da, Lamiakoren jatorriaren historia. Prudentzia andrea lamia bihurtuko dute eta akelarrera elkartuko da gainontzeko pertsoniak batera. Suaren inguruan elkartuko dira eta ikuskizun ederra eskainiko dute kantuaraz, dantzakaz eta antzerkiagaz. Jaiak hasierako emoteko modurik politena: zatoz Lamiakora maiatzaren akabuan! ○

### UDALBATZA 197/2006 DOKTRINAREN AURKA

Apirileko Osoko Bilkuran 197/2006 doktrinaren aurkako mozioa onartu zuen Udalak. EHBildu koalizioak aurkeztu zuen eta haren alde egin zuten EAJk eta EBk; PSE abstenitu zen eta PPK aurka bozkatu zuen. Zehazki, “197/2006 doktrina indargabetzeko eta beraz ezarri zaien euskal presoak berehala askatzeko” eskatu zuten, baita “euskal presoekin kontrako salbuespeneko legeak indargabetzeko” ere. 2006an Espainiako Auzitegi Gorenak kode penal zaharrean epaitutako presoekin zegozkien erredentzioak kondena osoari aplikatzeko doktrina ebatzi zuen, kode hark ezartzen zuen bete beharreko gehieneko 30 urteei aplikatu beharrean. Ondorioz, kaleratzeaz zeuden 83 presoekin zigorra luzatu diete beste 30 urte arte, eta horietatik 67 daude oraindik kartzelan.

### FRANCESCO TONUCCIREN HITZALDIA HILAREN 8AN

Maiatzaren 8an hitzaldia eskainiko du Francesco Tonuccik EHUko irakaslearen eskolan, Leioako campusean, 11:30ean. Herrigune Hezkuntza Komunitateak antolatuta du solasaldia, Topaketa deritzon ekimenaren barruan: “*Leioako hezkuntza komunitateak elkarrekin egoteko hartzen duen unea da, batzeko, bere burua birpentsatzeko eta, bakoitza bere arazoi eta aitzakiekin, elkar ezagutzeko*”.

Info+: [www.topaketa.org](http://www.topaketa.org)

### UMORE AZOKA IZANGO DA HILAREN 16TIK 19RA

Gogoratu! Aurtengo Umore Azoka maiatzaren 16tik 19ra izango da. Ikuskizunen herena erabateko estreinaldiak izango dira. Danara 300 proposamen baino gehiago jaso dute antolatzaileek eta horien artean aukeratu dituzte Europa eta Amerikako 53 konpainiaren 54 ikuskizun. Konpainien artean 12 euskaldunak dira eta lan danen artean 13 estreinaldiak dira.

Info+: [www.umoreazoka.org](http://www.umoreazoka.org)

**MR TALLER MECANICO**  
Coches, Motores Marinos y Fuerabordas  
Mota guztielako konponketak: Azterketak, Gurpilak, Indargelzaleak, Soinua...  
Tf. 94 430 17 81  
Bidezabal Kalea 9  
48993 GETXO

**BIZKAIA IRRATIA Uribe Kostan**  
F.M. 102.6 Mhz  
[www.bizkaiairratia.com](http://www.bizkaiairratia.com)



Aktualitatearen alde ezberdinak konbinatuko dizkizugu astero

ARGIA. Kalitatezko prentsa independentea

Jaso ezazu Euskal Herriko astekaria hilabetez **doan!**  
[sustapena@argia.com](mailto:sustapena@argia.com) · 943 37 15 45

## [erandio]

**Urko Real de Asua eta Gorka Olabarrieta** > Erandiogoikoako Ortzki kirol-elkartea

“Mendi-martxa ez da lehiarako ekimena, helburua da lagunarteko denborapasa egitea”

**Erandioko VII. Mendi-martxa izango da maiatzaren 26an, domekan, Ortzki kirol-taldeak antolatuta. Agian ez da ohiko martxa bat, ez delako lehiaketa. Ortzki taldeko lagun bik azaldu digute ekimenaren filosofia: Urko Real de Asua Markaidak eta Gorka Olabarrieta Camachok.**

—Zazpigarren mendi-martxa antolatu duzue maiatzaren 26rako?

—Bai. Osotara 30 kilometro izango dira eta ibilbidea joango da Erandioko mugarririk. Erandiogoikoan hasi, eta auzo eta tokietatik igaroko da: Faeta, Lutxana, Alzaga, Astrabudua, EHU edota Martiartu, berriro ere Erandiogoikoara bueltatzeko; gehien bat asfaltotik egiten da. Goizeko 08:00etan abiatuko da martxa eta bazkal orduan amaitu, baina partaide bakoitzak beren erritmoan egingo du. Martxaren ostean opariak eta saiheskia egongo da. Ia adin guztietako lagunek parte hartzen dute, gazteenak izaten du 15 urteren bueltan eta nagusienak 60 inguru.

—Eta zer asmoz antolatzen duzue?

—Gure taldean kirol anitzetako kirolariak gaude: txirrindulariak, herri-kirole-tan ibilitakoak, mendian ibilitakoak, e.a. Eta elkartea sortu zan ikusi guelako



Info+: [www.mendimartxak.com](http://www.mendimartxak.com)

gure herrian ez zegoela horrelako ezer. Baina ez da lehiarako ekimena, egunpasa egitekoa baizik.

—Baina partaideek aukera daukate kilo bat janari emoteko, zelan da hori?

—Gure filosofia da izen-emotea dohainik izatea, izan ere, kobratzen duzunean badirudi jendeak lehia bezala hartzen duela eta gure helburua da lagunarteko denborapasa izatea. Aurten, krisia dela eta ez dela, gure asmoa izan da izena emotean, dirua emon beharrean, kilo bat

janari emotea beharizan handia duten herritarrentzat; ez da derrigorrezkoa, baina ondo legoke.

—Baina beste gauza askotan ere ibiltzen zarete, ezta?

—Bai, adibidez, otsailean Belgikan egon ginen sokatiran konture, martxoan Hollandan egon gara bizikletan ibiltzen, maiatz bukaeran Erandiogoikoako jaiak antolatzen ditugu, udagoienean Amsterdango maratona egiteko gogoia dauka... Urte osoan egiten ditugu gauzak. ○

## Birziklatze-tailerra

Etxeko hondakinak birziklatzeko tailerra antolatu du **Keli** taldeak **maiatzean** Lutxanan



Maiatzaren 9, 16, 23 eta 30ean izango da tailerra

**Gure egunerokotasunak**, Keli taldeak dioenez, ez digu ohartzen uzten egunero zaramatara botatzen ditugun ontziak etorkizunean erabil daitezkeen objektuen hasiera izan daitezkeela. Horregatik, etxeko hondakinak birziklatze-tailerra antolatu du maiatzerako: 9, 16, 23 eta 30ean izango da, Lutxanako eskolan, 19:00etatik 21:30era; Iñaki Aginaga Pascualek gidatuko ditu saioak.

Tailerraren helburua izango da, funtsean, hondakin horiekaz etxerako jostailu dibertigarriak sortzea, gero umeakaz jolastu ahal izateko. Adibidez, musika-tresnak egingo dituzte plastikozko ontzi-

akaz, baina aldi berean panpin eta jostailuak ere izango dira, eta norberak kustumizatuko ditu: nor bere irudimena erabiliz eta aske utziz.

Keli taldeko lagunak iritziak, birziklatzeak ez du zertan deserosoa edo derrigorrezkoa izan, baldin eta esku-lanak eta faktore ludikoa gehitzen bazaizkio.

Taldeka egingo da tailerra, gehienez hamar pertsonak osatutakoak, eta partaide bakoitzak 25 euro ordaindu beharko du ikastaro hasieran. Izena emon gura baduzu ondoko telefono-zenbakietara deitzea besterik ez daukazu: 686 549 646 eta 944 761 493. Animatu! ○

## ARGIHIZKIAK ERAKUSKETA ALTZAGAN

Argihizkiak I. lehiaketaren irudien eta testuen erakusketak ikus daitezke maiatzaren 15era arte Alzagako erakusketaren aretoan. Iaz egin zen lehenengoz lehiaketa, eta erakusketak osatzen dute 15 argazkik eta horietan oinarritutako testu laburrek zein mezuek. Horregaz batera, gogoratzea daborduko abian dagoela bigarren lehiaketa: argazkiak ikusgai daude sarean eta testuak hilaren 31 arte bidal ditzakezue. Animatu eta parte hartu!

Info+: [egizu.org/literatura/argi-hizkiak](http://egizu.org/literatura/argi-hizkiak)

## ZINEMA ETA ANTZERKIA EUSKARAZ HIL HONETAN

Euskarazko sorkuntzari leku egingo diote maiatzean ere Astrabuduko kultur etxean. Hitzordu bi ipini dute maiatzaren hirugarren astebururako, bata filma eta bestea antzerkia. Horrela, maiatzaren 18an *Sukalde kontuak* pelikula ikusi ahal da 20:00etan, eta doan. Biharamunean, barriz, domeka 19an, *Baso sorgindua* lana antzetzuko du Patata Tropikala taldeak 17:00etan. Ikuskizun horretarako gonbidapena behar da: maiatzaren 9tik aurrera jaso ahal da Euskara Zerbitzuan eta Astrabuduko kultur etxean, gehienez bost pertsona bakoitzeko.

Info+: [www.erandio.net](http://www.erandio.net)

## GORPUZTI JAIK ERANDIOGOIKOAN

Udabarian erabat sartuta gaudela auzoetako jaien sasoiaren hasiera da eta, ohi legez, Erandiogoikoak inauguratuko du denboraldia. Izan ere, Gorpuzti jaiak ospatuko ditu maiatzaren 30etik ekainaren 2ra. Jai arrakastatsuek izan ohi dira Erandiogoikoakoak eta, urtero legez, ekitaldirik eta ospakizunik ez da faltako auzoan lau eguneko: erromeriak, kontzertuak, herri-bazkaria, dantza-erakustaldia, txapelketak, umeentzako jolasak... Parrandarako aitzakia ezin hobea duzu egunotan; beraz, ondo pasa!

Info+: [www.erandio.net](http://www.erandio.net)

**Luberr Basolanak, SL**  
Axpe ibaiertza 28A  
beheko solairua B12 lokala  
Erandio (Blzkaia)

Mugikorra: 629 41 18 38  
Tf.: 94 467 17 13  
Faxa: 94 467 42 41  
[luberr@euskalnet.net](mailto:luberr@euskalnet.net)  
[www.luberr.biz](http://www.luberr.biz)

- Soropila ezartzea  
Lurzorua prestatzeko lanak, dreinatze lanak, ureztatze sistema ezartzea, funtsezko ongarritze lanak eta ereite lanak.
- Seropila zaintzea eta mantentzea  
Moztea, ureztatzea, ongarritzea, egurastea, aratzea eta destrinkotzea, berrelikatzea, soropili gaitzak eta belar gaiztoak tratatzea.
- Inausketak  
Hazteko, mantentzeko, berritzeo, zuhaixka apaingarriak inaustea, erabateko inausketak.
- Barrualdeak lorategi bihurtzea

## Binilo apaingarria

Diseinatu zure lekua biniloarekin apainduz

Biniloaren tamaina: 43 x 58 cm  
6 eredu ezberdin  
Espatula dohainik

Eredu gehiago ikusteko, gure binilo katalogoa eskatu

BAKARRIK

# 19,90 €

BEZ BARNE

Villa de Plentzia, 6  
**GETXO**  
Gobela metro geltokiaren ondoan

## METRO BILBAOREN LANAK SOPELAN

Ekainaren 19ra arte Metro Bilbaok Enrike Urrutikoetxea kalea zeharkatzen duen zubian lanak egingo ditu. Obra horiek eragin nabarmena izango dute metroen maiztasunean, baita kale horretako errepidean ere. Metroko arduradunek adierazi legez, egunetik egunera metroaren maiztasunak aldatu egingo dira; hortaz, metro erabiltzaileek ordutegi barriak honako web-orrialdean kontsultatu beharko dituzte: [www.metrobilbao.net](http://www.metrobilbao.net). Halere, Metro Bilbaok dioenez, metroen joan-etorriari ahalik eta kalte gutxien eragiteko asmoagaz herri-lanak gaez egingo dituzte.

## MAIATZAREN 17AN, ERROMERIA UDALETXEKO PLAZAN

Aitxu! euskara elkarteak antolatuta, hilaren 17an, barikua, arrastiko 19:00etatik aurrera erromeria izango da Sopolako Udaletxe plazan. Bertan giro jator eta ederraz gozatzeko aukera izango da; horrez gainera, bertaratuko direnek txorizo pintxoak jateko aukera izango dute, eta trikitilariak ere herriko bazterrak alaituko dituzte. Hortxe aukera, bada, dantzan plazara ateratzeko!

## URAREN ZIKLOAREN ERAKUSKETA KURTZIO KULTUR ETXEAN

Maiatzaren 17ra arte uraren zikloaren inguruko erakusketa egongo da Kurtzio kultur etxean. Unesco Etxeak antolatuta, Uraren Zikloak erakusketak urak Lurrean duen presentzia eta mugimendua azaltzen du; izan ere, ura etengabeko mugimendu eta aldaketan ari da: likido egoeratik, lurrin eta izotz egoerara, eta alderantziz. Betiko fenomeno da hori, eta Lurreko bizia horren mende ei dago; ur barik ezingo baikinen Lurrean bizi. Horratz aukera, uraren ezkutuko misterioetan erabat murgiltzeko.

## “Gure Sope” abian da Hirigintza eredu berpentsatzeko ariketa genero ikuspegia ardatz izanik



Inkestak, besteak beste, udaletxean, Kurtzio kultur etxean eta liburutegian bete ahalko dira

**Sopolako** Udalak genero ikuspegia hirigintzan txertatzeko asmoagaz, “Gure Sope” izeneko proiektua abiatu barri du. Proiektu horren bitartez Udalak zera lortu gura du: hirigintza-eredua genero ikuspegitik berpentsatu, eta berori eraldatzeko herritarrei aukera emon gura die. Hala, partaidetza eta bitartekarritza sustatzeko, herritarren iritziak eta ikuspuntuak jasoko dituen prozesua martxan jarri du; prozesuaren partaidetza Nuke Plataformak kudeatuko du. Apirilean hasi, eta ekainera arte iraungo du prozesuak; denbora tarte horretan,

herritarrek hirigintza-ereduren inguruko arazoak plazaratu, eta horiek gaitzeko proposamenak egin ahalko dituzte. Proposamenak hainbat modutan izango dira: inkestak, elkarrizketak, tailerren, asanbladen bidez, baita online bidezko parte hartzearen bitartez ere. Sustatzaileen esanetan, hirigintza analisisa egin ostean, hiri-eredua eraikitzeari ekingo diote. Bada, prozesu honek xede du genero ikuspegia duen hirigintza eredu, eta horretarako, herritar guztiak herriko espazio publikoan parte hartu, eta goza dezaten bermatuko da. ○

**Lander Unanue** > Abarkatxo proiektuaren sortzailea  
“Abarkatxok android, iPhone eta iPad gailuentzako aplikazioak egiten ditu”



Proiektuaren inguruko informazio gehiago: [www.abarkatxo.com](http://www.abarkatxo.com)

**Orain** urtebete, Bertsoapp aplikazioaren barri eman zigun Lander Unanue sope-loztarrak; ondoren, aplikazioen munduan erabat murgildu, eta Abarkatxo proiektua sortzeari ekin zion.

—Zertan datza Abarkatxo?

—Abarkatxo proiektua orain dela urte bete inguru hasi zen, eta android, iPhone eta iPad gailuentzako aplikazioen garapena eskaintzen du. Horrez gainera, niri bururatutako beste aplikazioen eskaintza ere egiten du Abarkatxok. Hala ere, edozein erakundek egin dezake aplikazio zehatz baten eskaera, eta hori hain zuzen egiten dugu.

—Zein ezaugarri daukate aplikazioek?

—Bertsoapp sortu nuen euskarazko aplikazio gutxi zeudelako. Ondoren, 300 Poema aplikazioa ere gertu dut, horretan txineraz 300 olerki irakur daitetzke. Aplikazioek ez daukate ezaugarri komunik; niri bururaten zaizkidan gauzak egiten ditut, baina hizkuntza horiekaz jokatzeko: euskara, txinera,

gaztelania eta ingelesa. Azken finean, nire motibazioen arabera aplikazioak sortu eta garatzen ditut.

—Zelan dago aplikazioen merkatua?

—Bada, zabalpen handia izan du azken urteetan; ezer ez egotetik, merkatu zabalagoa da. Aplikazio bat garatzeko ordenagailua baino ez da behar; inbertsio txikiarekin etekin handiak lor ditzakezu. Horregatik, jende asko aplikazioak egiten hasi da, eta merkatuak espezializatorantz jo du.

**«Aplikazioen mundua zabaldu, eta espezializatorantz jo du»**

—Krisi garai honetan, arriskatu egin zara...

—Nik uste dut inork ezin duela inoiz bere nahia, ametsa baztertu; ezta krisi-gatik ere. Krisi garaian proiektua garatzea zailagoa da, noski. Baina, egun, teknologia berriek aukera ugari eskaintzen eta inbertsio txikia eskatzen dute. ○

## DIDAK HAMILTON IDIOMAS

### Ingelesa, Frantsesa eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
- Eskolaz kanpoko ekintzak
- Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
- Talde txikiak
- Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa 6 eta Iberre 9 / 48600 Sopela.  
Tf. 94 676 30 12  
[info@didakhamilton.com](mailto:info@didakhamilton.com)

## ANDER DEVNA IKASTOLA

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta barrikuntza

Gatzarrine z.g. SOPELA  
Tf. 94 676 02 66  
Email.: [sopela@ikastola.net](mailto:sopela@ikastola.net)

## OINUTSIK KONTSULTA PODOLOGIKOA

Nahia Andrés Bilbao (nº col. 236)

Zubigane 4  
48600 Sopelana  
Tf. 94 404 74 20  
CITA PREVIA  
[oinutsik@euskaltel.net](mailto:oinutsik@euskaltel.net)



**OINAK DITUZU ONGIZATEAREN ZUTABE, OINEZ EDONORA HEL ZAITEZKE!!**

Cerca de la salida del metro (a 150 metros). En el mismo edificio de Correos, a la vuelta de Santiveri.

**Gosariak, Pintxoak, Giro eta musika onena ONGI ETORRI!!**  
Bentatxu 2 Tf. 94 676 03 28 SOPELA

## EGUNKARIAK prentsa eta aldizkariak

*gura izanez gero, etxera eroango dizugu egunkaria!!!*

Algortako etorbidea 78  
Tf. 94 491 27 34

## UDALEKO WEB-ORRIALDEAN, UDAL IZAPIDEAK ETXETIK

Daborduko Berangoko auzokideek aukera daukate izapide administratiboak etxetik egiteko; izan ere, Udaleko web orrialdean 16 udal-izapide egin ditzakete, horien artean; erroldatzeak, baita erroldatzen moldaketak ere, distantzia ziurtagiriaren eskaria, hirigintza informazioaren eskaria edota ziurtagiri berezien eskabidea, besteak beste. Horrela, ekinbide honek helburu dauka, epe laburrean online bidez 100 izapide egin ahal izatea. Zerbitzu telematiko barriak auzokideek beren izapideen egoera zein den jakingo dute, baita horien historiala ikusi ere, eta eskatutako ziurtagiriak barriro inprimatzeko aukera izango dute. Zerbitzu hori Bizkaiko Foru Aldundiko BiscayTIK proiektuaren eskutik sortu da, eta hilabeteen ostean, Udalak sistema barria argitan emon du. Gainera, nahi duenak aukera izango du tresna barri hau maneiatzeko ikastaroa jasotzeko; interesatuek izena emoteko kultur etxera hurbildu beharko dute.

Info: info@biscaytik.eu / 900 840 250

## BURDIN HESIARI BURUZKO ARGAZKI ERAKUSKETA

Berangoetako Kultur Etxean ikusgai daude Luis de La Fuente argazkilarik berangoztarrak burdin hesiaren inguruan egin duen erreportajearen argazkiak. Interesatuek ekainaren 7ra arte obra ikusteko aukera izango dute astelehenerik barikura, honako ordutegian: 12:00etatik 14:00etara, eta arratsaldeko 17:00etatik 20:00etara.

## ANTZERKIA MAIATZEAN

Hil honetan antzerkiagaz gozatzeko aukera egongo da Berangon, besteak beste: hilaren 11n Itzartu taldeak *Damas, señoras, mujeres* lana antzeztuko du; eta maiatzaren 25ean, Sutondoan konpainiaren *Lan entretenidas* obra ikusgai egongo da Berango Antzokian.

## Txirringak, prest dira!

Elkarrek txirringulak-taldeak aurkeztu ditu eta denboraldi barriari ekin dio



Elkar Kirolak Taldeak antolatuko du bigarren Txuma lasterketa

**Elkar Kirolak Taldea** 78 txirringulak inguruk eratzen dute aurten; erandioztar, leioztar, eta berangoztar umez eta gaztez osatutako txirringulartza taldea, hain zuzen. Guztira, 6 urtetik 22 urte bitarteko haurrek eta gazteek parte hartzen dute adinaren arabera lau taldetan: eskola taldea (6-14 urte bitartekoak), kadeteak (15-16 urte bitartekoak), gazteak (17-18 bitartekoak), eta azkenik, 23 urte baino gutxiagokoak, sub 23 taldean. Mutilek ez ezik, 10 neskek ere parte hartzen dute talde horietan. Aurkezpen ekitaldian taldeen barri

emoteaz gainera, aurtengo denboraldiari hasiera emon zioten. Hala, Elkar Kirolak Taldea aurten ere, iaz lehendabizikoz egin zuen legez, Txuma lasterketa antolatzen dabil. Horrela, uztailen hiru eguneko karrera antolatuko du Elkarrek; Erandion, Leioan, eta Berangon egingo dena. Iazko parte hartzea nabarmena izan zen, 100 txirringulak inguruk parte hartu zuten-eta. Aurten, baina, eta antolatzaileek adierazi legez, 12 selekzioi parte hartuko dute, baita hemengo 29 taldek ere; arrakastatsua espero da, beraz, Txuma lasterketa. ○

X. Perez, J. Bilbao Lopategi > Behargintzako arduradunak

“Hizkuntzetan eta bezeroaren arretan trebatu gura dugu”



Urte batzuetatik hona Mankomunitateko herrietan 900 langabe izatetik 2.400 ingurura igaro da

**Behargintzak** Mankomunitateko langabeentzat hizkuntzak ikasteko ikastaroa abiatu barri du; ekainera arte iraungo duena. Hala, langabeak lan-munduratzeko ekimenaz berba egin dugu Behargintzako langile X. Perezegaz eta Behargintzako lehendakari eta Urduizko alkate Bilbaogaz.

—Zer dela eta hizkuntza ikastaroa?

—Egia esan, langabeentzako hizkuntza ikastaro bat baino gehiago da. Kontua da, iazko udaberri eta uda artean azterketa bat egin genuela, bai enpresa batzuekin, bai langabeekin. Lan horretan Lanbideak lagundu zigun. Azterketaren emaitzetan, besteak beste, langileek hizkuntzak ikasteko beharra, eta bezeroari arreta-zerbitzuan, formatzeko beharra antzeman genuen. Gainera, hizkuntzak ikasteko beharra, eta bezeroari arreta zerbitzua ez zen soilik turismo alorrera mugatzen; izan ere, enpresa industrialetan

ere horrelako beharrak badaudela ondorioztatu genuen; gaur egun, Lanbide Herriko hizkuntzak ere ikasten dira.

—Zelako harrera izan du ikastaroak?

—Guztira, 15 pertsonako 4 klase sortu dira: frantses eskola bat, alemanezko

«100 orduko frantses, aleman eta ingeles ikastaroak doan»

beste bat, eta ingelesezko bi. 100 orduko ikastaroak dira, denak debalde. Beraz, erantzuna ona izan da. Gainera, ikastaro teorikoaz gainera, gustatuko litzaziguke ikasleei praktikak egiteko aukera ere emotea, eta horretan saiatzen ari gara.

—Beste ikastarorik begibistan...

—Badaude beste proiektu batzuk, baina, Gobernuaren dekretuak direla-eta, ez dakigu egin ahalko ditugun. Egundak, 2.400 langabe daude Uribe Kostan, eta eskariak ere gora egin du.○



## AIXERROTA BHI

• TEKNOLOGIKOA  
BATXILERGOAK • NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK  
• GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK  
DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK  
ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)



INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.AIXERROTABHI.NET / TF. 94 491 17 86

## OSABIDE HORTZ KLINIKA

Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, behea eskuina  
ALGORTA  
94 430 76 96



## Garaizar barrikuntzak

- igeltsaritza orokorrean
- lokalak eta etxebizitzak
- gremioak

Tf. 944 430 52 43 / 607 952 977 -6 • regaraizar@euskalnet.net  
www.garaizar.biz  
Illeta kalea 1 • ALGORTA



## Harrizko moduko kalitatea!

- Garbiketa orokorrak
- Mantentze garbiketa
- Garbiketa industrialak
- Itsasontzi garbiketa
- Ospital garbiketa
- Elikagai Industriak igienizatzea, garbitzea eta desinfektatzea
- Legionellaren kontrako tratamenduak
- Airestatze tutuak, aire girotuak eta hodi industrialak garbitzea
- Lan osogarria

Andres Isasi 11, Behe ezkerria (Bilbo)  
Tf. 94 470 06 69 e-posta: bilbao@limpiezasvillar.com



**Ane Nafarrate Martin**  
Doctor landa 4, Sopela  
Telf.: 946026779

## MAIATZA GAZTEA BARRIKAN

Maiatzean, Barrikako Udalak hainbat jardura antolatuko du gazteentzat; hala, gazteek paddel surf, slickeline, skate eta surfa egiteko aukera izango dute. Tailerrak maiatzaren 11n, 18an eta 25ean izango dira, arrastiko 18:00-20:00 bitartean. Izena emoteko azken eguna maiatzaren 4an izango da; hala ere, ondoren lekurik egotekotan, parte hartzeko aukera izango da. Eskaintzaren prezioa 6 eurokoa izango da, eta izena emoteko interesa daukatenean Udal Kulturgunera hurbildu beharko dute.

Info+: [liburutegia@barrika.net](mailto:liburutegia@barrika.net)

## GORLIZKO ONDAREA EZAGUTZEKO IKASTAROA

Datorren udagoiengan, Gorlizko bertoko euskara, ahoko ondarea eta toponimia ezagutzeko ikastaroa abiatuko da; ikastaroan parte hartzeko izen-emotea, aldiz, maiatzean hasi eta irailera arte luzatuko da. Ikastaroa urriaren 3an, 17an eta azaroaren 7an eta 21ean izango da, arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara. Izen-emotea Kultur Etxean da.

## MAIATZEAN, OLGETAN!

Hil osoan haurrentzako jolasak prestatuko dituzte hainbat herritan, hurrenez hurren: astelehenetan Lemoizeko eskolan izango dira (17:00-19:00); eguenetan Plentziako Astilleron, barikuetan Urdulizko Antsonokoan (17:30-19:30), eta zapatuetan Gorlizko Ibarretan (12:00-14:00).

# aldai

TAPIZTEGIA  
DEKORAZIOA  
ERAKUSKETA  
ETA TAILERRAK

Basagoiti etorbidea 32  
Tf. 94 460 90 31  
48990 ALGORTA

## Urduliz

# Aurrekontuak onartu dituzte %27ko murrizteagaz; inbertsioei kalte



Krisiaren eragina Urdulizera ere heldu da

**Eskualdeko** gainerako herrietan legez, Urdulizen ere aurrekontuak izan dira zenbait udalbatzatak mintzagai nagusia. Hala, aurreko hilean aurrekontuei baiezkoa emotea lortu zuen bertako udal-gobernuak; EAJren eta PSEren aldeko bozkek, guztira 6, oniritzia emon zieten proposatutako kontuei. Bilduk, ostera, 5 bozkakaz ezezkoa emon zien. Krisiak eraginda, nabarmen jaitsi dira aurrekontuen partidak, eta iazko aurrekontuak alderatuta %27 murriztu dituzte. Horrela, Udalak guztira 5.149.819 euroko aurrekontua kudeatuko du; hala nola, murrizketa handiena inbertsio-partidek jasango dute: 1, 255 milioi euro gitxiago. Murrizketa horrek ez ei du eraginik izango aurreikusitako proiektuetan; Antsoneko plazako kulunkak estaltzeko proiektuak aurrera darrai, berbarako. Horrez gain, Udalak, aurretik agindu bezala, Aita Gotzon Kalea urbanizatzen jarrai-

tuko du, Elortza eskoletako espaloiak egokituko ditu, eta gainera, Urdulizko argiztapena hobetzeko planak jarraituko du; izan ere, ingurumen-eragina saihesteko hasitako lanek jarraitzea erabaki dute. Bestalde, udal-gobernuaren partidak garrantzitsuenak formazio eta lan

## “Urdulizko argiztapena hobetzeko planak jarraituko du, baita Aita Gotzoneko urbanizatzeko ere”

planetan inbertituko dituzte, 150.000 euro guztira. Horrez gainera, elkarte sozial eta kulturalei emoten dizkieten laguntzak gehienak mantenduko dituzte. Azkenik, Urdulizko gobernuak Uribe Kostako Mankomunitateari emoten dion partidari eutsiko dio, ongizate sozialari murrizketarik ez egiteko asmoagaz. Halaber, Urdulizko agintariek adierazi legez, euren lehentasuna zerbitzu sozialei eustea izango da. o

# Mai. 6 - Mai. 27

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: [agendauk@aldizkaria.biz](mailto:agendauk@aldizkaria.biz) • Tf. 94 491 13 37

## ERAKUSKETAK

### ERANDIO

► **Argihizkiak.** Maiatzaren 15era arte. Altzagako erakusketagela.  
► **Erandioko musika-eskolaren argazkiak.** Maiatzaren 20tik 31ra. Astrabuduko kultur etxean.

### GETXO

► **Zirri-marra.** Maiatzaren 18ra arte. Algortako kultur etxean. Doan.  
► **Ehoziri lanak.** Maiatzaren 25era arte. Algortako kultur etxean. Doan.

## MUSIKA

### GETXO

► **Nevada.** Maiatzak 9, 20:00etan. Areetako Aremuna kafetegian. Doan.  
► **Minima.** Maiatzak 16, 20:00etan. Algortako Usategi kafetegian. Doan.  
► **Bikoizten.** Maiatzak 23, 20:00etan. Romoko Billares tabernan. Doan.

### PLENTZIA

► **Iraunkor abesbatza.** Maiatzak 11, 20:00etan. Elizan.

### ERANDIO

► **Udabarriko kontzertua.** Maiatzak 24, 20:00etan. Altzagako azoka zaharrean. Doan.  
► **Dantzaldia.** Maiatzak 25, 18:00etan. Trabudu plazan.

## ANTZERKIA

### ERANDIO

► **The full monty.** Maiatzak 11, 20:00etan. Altzagako azoka zaharrean. 3 euro.  
► **Clunia, Roma, esa es la cuestion.** Maiatzak 25, 20:00etan. Altzagako azoka zaharrean. 2 euro.

Edorta Jimenezek gidatuko du txangoa

► **Berbatxangoa**  
**Itsasadarrean barrena Edorta Jimenezegaz**

Udabarria badoa aurrera eta eguraldi ona baliatu gura dute Uribe Kostako berbalagunek. Horregatik, Berbatxango berezia antolatuko dute maiatzaren 19rako: itsasadarrean barrena egingo dute txangoa itsasontziz, Areetako Arriluze kaitik Bilboko Guggenheim museoraino. Hizlaria Edorta Jimenez izango da eta berbagaia, besteak beste: portua, Santurtziko sardinak, txatarraren duintasuna Sestaon, Euskalduna ontziola, presondegi-ontziak Erandion, e.a. Goizeko 10:00etan hasiko da, helduek 5 euro ordaindu behar dute eta umeentzat doan izango da. Izena emoteko: [berbots@gmail.com](mailto:berbots@gmail.com), [aitxuibaba@gmail.com](mailto:aitxuibaba@gmail.com), [egizuetxo@gmail.com](mailto:egizuetxo@gmail.com).

• **Non:** Areetako Arriluze kaian • **Noiz:** Maiatzak 19, 10:00etan

### SOPELA

► **Erbia eta dordoka.** Maiatzaren 12an, 18:00etan. Kurtzion. 3/5 euro.

### LEIOA

► **Umore-Azoka.** Maiatzaren 16tik 19ra. Leioako erdigunean.  
► **Lamiako maskarada.** Maiatzak 24, barikua. Lamiako auzoan.

### GETXO

► **Sialuk, hartz txikiaren bidaia.** Maiatzak 19, 18:00etan. Areetako musika-eskolan. 4 euro.

## ZINEMA

### BARRIKA

► **La vida de Pi.** Maiatzak 11, 18:00etan. Ander Deuna aretoan.

### ERANDIO

► **Sukalde kontuak.** Maiatzak 18, 20:00etan. Astrabuduko kultur etxean. Doan.  
► **Baso sorgindua.** Maiatzak 19, 17:00etan. Astrabuduko kultur etxean. Gonbidapenagaz.

### GETXO

► **Los croods.** Maiatzak 12, 17:00etan. Areetako Andres Isasi musika-eskolan. 2,10 euro.  
► **Silencio en la nieve.** Maiatzak 17, 21:00etan. Areetako Andres Isasi musika-eskolan. 2,90 euro.

### SOPELA

► **Si de verdad quieres.** Maiatzak 16, 18:00etan. Kurtzion. Doan.  
► **Rompe Ralph.** Maiatzak 19, 18:00etan. Kurtzion. Doan.

## BESTEAK

### ERANDIO

► **Liburu-aurkezpena: Uribe Kostako bertsolaritza (1900-1980).** Maiatzak 8, 19:00etan. Erandiogoikoako gizarte-etxean.  
► **Liburu-aurkezpena: Mi aula de besbes.** Maiatzak 20, 19:00etan. Astrabuduko kultur etxean.  
► **Erandioko VII. Mendi-Martxa.** Maiatzak 26, 08:00etan. Erandiogoikoako plazatik.

### GETXO

► **Itxas-Argia taldearen dantzaldia.** Maiatzak 11, 21:00etan. Getxoko Andra Mari kiroldegian.  
► **Irakurzaleen txokoa: Kirmen Uribe, Mussche liburugaz.** Maiatzak 23, 20:00etan. Algortako Aldai patronatuan.

### PLENTZIA

► **Ibilgailu klasikoaren bira.** Maiatzak 19, 10:00etan. Astillero plazan.

### SOPELA

► **Hitzaldia: Euskararekiko motibazio eta jarrerak.** Maiatzak 23, 19:00etan. Kurtzio kultur etxean.

### BARRIKA

► **Umeentzako nutrizio-tailerra.** Maiatzak 24, 18:00etan. Liburutegian.

SATISTEGI  
CAFE

ADITUAK GARA PINTXO ETA BOKATA BEROETAN!!!!


BASAGOITI ETORBIDEA 51  
ALGORTA




# Erronka gaindituz

Apirilaren 20an Oskar Perez eta Juanjo Agirregabiria txinga-erutean lehiatu ziren Sopelan, ikuskizun harrigarria eskainiz! Galtzailerik ez zen egon indarraren eta erresistentziaren jai horretan; halere, erronka Perezek lortu zuen: guztira 360 untze, plaza egin zituen, ia bi orduz lotu barik 10 km inguru ibili ostean. Plaza jendez bete zuen txingen demak, eta bertaratutakoek beste hainbat herri-kiroletako erakustaldiakaz ere gozatzeko aukera izan zuten.

Argazkiak: **Ane Basagoiti**





## Areetako bonbardaketa

1937ko apirilean

Joan dira 76 urte Francoren armada faxistak Bizkaiko hainbat herri bonbardatu zituenetik: 1937an gertatu zen, Espainiako Gerra Zibilean. Ezagunenak dira Durango eta Gernikakoak baina, gurean ere, dozenaka pertsona hil eta zauritu zituzten. Orduko irudia ekarri dugu orriotara, Areetan hartutakoa. Urte hartako apirilean izan ziren bonbardaketak Uribe Kostan, hilaren 22tik 30era: Areetan, apirilaren 24an, 9 lagun hil eta 13 zauritu zituzten; eta Getxon, guztira, 15 hildako eta 29 zauritu egon ziren. Erandion, 29 hildako eta 37 zauritu. Leioan, 19 hildako eta 24 zauritu. Eta Berangon, hildako 2 eta 6 zauritu. Ez dezagun gal memoria historikoa.

GETXOKO UDAL LIBURUTEGIA

[berbetan]

Luisi Uharte (Iruñea, 1974) Antropologia Sozialeko irakasle (EHU) eta Hego Amerikako gaien inguruko ikertzaile da. Bizitza nomada ei daroa, Paraguitik itzuli barritan elkartu gara beragaz, eta atzerrian ez bada, orain pare bat urtetik Plentzian edo Iruñean bizi da. Latinoamerikar Ikasketetan doktore, Hegoa Ikerketa Institutuko (EHU) ikertzaile, Parte Hartuz (EHU) taldeko kide e.a. *El sur en revolucion: una mirada a la Venezuela bolivariana* (Txalaparta, 2008) eta *Multinacionales en el siglo XXI: Impactos múltiples. El Caso de Iberdrola en Mexico y Brasil* (2015 y mas, 2012) liburuak eta hamaika artikuluko akademiko idatzi ditu, azkenetako bat: “*El proceso de democratización paraguayo: avances y resistencias*” (America Latina Hoy, 60. zk.).

# Luisi Uharte

## Gaurkoan Mexiko, Brasil eta Venezuela

Testua: **I. Sagarmínaga** Argazkia: **Itziar Gandarias**

—Enpresa multinazionalak herrien garapenean duten eraginari buruzko ikerketa-lana kaleratu zenuen iaz. Euskal jatorriko Iberdrola enpresak Mexikon eta Brasilen dituen eragin-ondorioen kasua aztertzen duzu, hain zuzen ere.

—Ikerketa Hegoak-en bitartez heldu zitzaigun enkargua; Plataforma 2015 y mas izan zen bultzatzaile. Haien helburua kasu honetan, multinazionalen inguruko ikerketa egitea izan da. Multinazionalen inguruko analisi kritikoa egin nahi zen, are gehiago gaur egun oso beharrezkoa da kontuan hartuta krisi betean gaudela eta krisi hori ulertzeko multinazionalak jokatzen duten papera oso zentrala delako. Azken finean, multinazionalen hitz egiten dugunean kapitalismoaren agente estrategikoen hitz egiten ari garela. Zergatik? Kontzentratzen dituztelako alde batetik jabetza, eta bestetik baliabideak; horregatik, oso beharrezkoa da ikerketa kritikoa egitea agente estrategiko hauen inguruan. Gero, Iberdrolaren kasua zergatik aukeratu nuen? Iberdrolari buruzko ikerketa kritikoa ia ez direlako egin, eta

ezinbestekoa zelako hori aztertzea.

—Beren-beregi Iberdrolak Mexikon eta Brasilen duen eragina ikertu duzu. Zeintzuk dira eragin-ondorioak?

—Egia esan, inpaktu asko detektatu genituen. Ikerketa planteatu nuenean, gutxi gorabehera, helburua dimentsio desberdinetako inpaktuak neurtzea eta identifikatzea zen; horrek esan nahi du nahiko orokorra izan dela ikerketa, hau da, alde batetik, dimentsio politikoa agertzen da, baina horrekin batera dimentsio eko-

zen; hala, bertako sektore estrategikoak pribatizatzen hasi ziren, eta horrekin batera kanpoko multinazionalak eta kapitala sartu ziren. Iberdrolak Brasilen eta Mexikon sartzeko aukera hori baliatu zuen, sektore elektrikoan aktiboak beregatzeko. Horregatik, antzematen den lehenengo inpaktua subirautea arloan ikusten da. Horri oso lotuta dago merkantilizazio-prozesu bat, azken finean, zerbitzu publiko bat (energiarena) pribatizatzen denean, noski, zerbitzu hori merkantzia

### “Iberdrola multinazionalak Mexikon eta Brasilen duen eragina ikertzean inpaktu asko detektatu genituen”

nomikoa, soziala, lan-arloko eta kultural-arlo inpaktoak e.a. Arlo ekonomikoan aipatuko nuke, Iberdrolak, beste multinazional batzuek egiten duten bezala, subirautean egiten duen inpaktua. 90. harmarkadan, mundu mailan martxan jarri zen pribatizazio-prozesua, hemen bezala, Mexikon eta Brasileko ere ireki

bihurtzen da; eskubide izatetik merkantzia izatera. Horrekin batera, askotan, prezioak igotzen dira, kobertura okertzen da, jende askok ezin du ordaindu, mozketak egiten dituzte... Enpresek etekin ikaragarriak lortzen dituzte, Latinoamerikako lekuri errentagarriena da zentzu horretan. Gero, arlo politikoan, Iberdro-





lak, multinazional guztiek bezala, lobby-a egiten du, kasu honetan lobby elektrikoak; botere handia dutenez, lobby-a erabiltzen dute bertako politikariak, Kongresu Nazionaletik hasita arlo lokalerainokoak, erosteko... bere alde legisla dezaten. Mexiko eta Brasilen oso esanguratsua izan da, pribatizazio garaian prezio merkean erostea ahalbidetu zien. Horri estuki lotuta doa ustelkeria, azken finean, lobby-a martxan jartzen denean, askotan, dirua erabiltzen delako politikariak erosteko. Ondorioz, zalantzarik gabe, ustelkeria agertzen da. Esaterako, Mexiko hegoaldean, Oaxacan, herri indigena asko daude, eta gatazka politiko handia sortu zen Iberdrola eta beste multinazional batzuk ailegatu zirenean, eta gatazka horri edo bertako erresistentziari aurre egiteko lortu dute polizia eta nolabait botere judiziala Iberdrolaren alde agertzea. Hala, errepresioa eta kriminalizazioa izan dira Iberdrolak sortu edo bultzatu dituen beste ondorio batzuk. Lan-arloari dagokionez, lan eskubideak urratzen dituzte: kaleratze masiboak (pribatizazioaren ondorioz: adib.: Brasilen kasua, Neoenergia enpresak), kontratazio berriak azpikontratan bitartez egiten dituzte, lan baldintzak okertuz (soldata baxuagoak, gizarte segurantzarik ez...); sindikalizazio eskubidea urratzen dute: sindikatu "horiakin" (patronalaren aldekoak) lan egitera behartuz bai Mexikon bai Brasilen...

—Tehuantepec istmoan (Oaxaca) nekazarien lurak desjabetu dituzte, arrantzaleak ere haserre, jatorrizko herriekiko kalte-eragina itzela izan da...

—Bai, zalantzarik gabe. Iberdrola bere ikuspuntu enpresarialetik abiatuta iritsi da Oaxacara. Bertan bizi den gizartearen gehiengoa indigena da, haien kosmobisioa guztiz ezberdina da... Pentsa, haien zat haizea zerbait sakratua da! Eta Iberdrola eta besteak ailegatu direnean, horientzat haizea negozio da, merkantzia. Horrek bakarrik talka ikaragarria sortu du bi alde-entartean. Orduan, noski, haiek lehenen-

go momentutik defendatu dute haien lurra... Zehaztu behar dugu 90. hamarkadan sektore pribatuak Tehuantepec inguruan ikerketa egin zuela jakiteko zer-nolako negozioa egin zezaketen han; ondorioztatu zuten leku oso egokia zela haizearekin negozioa egitekoa, eta hortik aurrera "desenbarkoa" planifikatzen hasi ziren, bertako politikoekin harremana egin

## “Arlo ekonomikoan, politikoan, kulturean eta lan-arloan eragiten dituzten ondorioak ikaragarriak dira”

zuten... Iberdrola eta beste europar enpresa batzuk Tehuantepecera ailegatu zirenean, alde aurretik banatuta zeukaten haien artean lurren zati handi bat, bertako politikarien laguntzagaz lortu zuten bertako nekazari asko engainatzea: “balizko kontratu onak” eskainiz. Denbora pasa ahala, bertako nekazariak konturatu ziren engainatu egin zituztela sinatutako kontratuak oso txarrak zirelako. Horrek nekazarien haserre sortu zuen eta horrek ahalbidetu zuen jendea antolatzea, haien burua defendatzeko erakundea sortu zuten. Hortik aurrera gatazka politiko eta soziala areagotu zen. Bestalde, Brasilen, Belo Montenen ere indigenak daude, han indigenen kooptazioa gertatu da: herri indigenetako liderak erosi dituzte, eta gaur egun neutralizatuta dute erresistentzia, hilabetero jana-

## “Ekoizpenaren %50 baino gehiago “energia-zikina” da, 2/3 zikina eta arrisku handikoa (nuklearra)...”

ria, gasolina ematen dizkiete.

—Parke eoliko handia egin dute Oaxacan. Energia berriztagarrien aldeko itxura saltzen duen enpresaren atzean zer dago?

—Mega-proiektu transnaziola da; ez da parke bakarra, 30 parke eoliko planifikatuta daude. 2/3ak multinazionalen esku egongo dira. Eta 2/3 ez dira izango jende-

ari zerbitzu energetikoa emateko, baizik eta bertan kokatu diren enpresek energia jaso dezaten; hau da, Bimbo bezalako enpresa handiek energia elektriko kopuru handia behar dute haien industria-fabrikak funtzionatzeko, beraz bertan sortuko den energia elektrikoaren zati handi bat enpresa pribatu horientzat izango da. Hau da, bertan sortzen den energia sektore pri-

batuak kontrolatuko duela eta sektore pribatuarentzat izango dela neurri handi batean. Bestalde, Iberdrola eta beste multinazionalen kasuan, oro har, propagandak eta errealitateak talka egiten dute aurrez aurre; erakutsi nahi dute alde “berdea” eta “eskubide sozial eta kulturalak errespetatzen dituela”, aldiz errealitatea beste hau da: ekoizpenaren %50 baino gehiago “energia-zikina” (ikatz, gasa) da, 2/3 zikina eta arrisku handikoa (nuklearra), %15 soilik berriztagarria-eolikoa, eta ekoizpen “garbia” eolikoa Latinoamerikan baxuena da, %4 soilik, baina horren kontura propaganda ikaragarria egiten dute.

—Zelan aurre egin ezkerreko Euskal Herri internazionalistatik halako egoerei?

—Nire ustez betikoa: bertako errealitateak ezagutu behar ditugu, ahalik eta ongien,

bertako jendearekin harremanetan jarri bertako errealitatea hona ekartzeko eta hemen zabaltzeko. Aukera dagoenean brigadak edo halako bidaiak egitea. Haiei ongi datorkie elkartasuna jasotzeko, informazio zuzena jasotzeko aukera ona dira, bueltatzen garenean hemen zabaltzeko haien egoera. ○

## Venezuela bolivartarrean zer?

—Venezuela bolivartarraren ibilaldia ere hurbiletik jarraitzen duzu. Espero baino tarte txikiagoagaz irabazi ditu Madurok hauteskundeak. Zer irakurketa egiten duzu?

—Egia esan, Venezuelako hauteskundeetako emaitzek, nik uste, guztiok harritu gintuztela. Printzipioz, indikadore guztiek erakusten zuten mugimendu bolivartarrak irabaziko zituela hauteskundeak erraztasun handiz, inkesta-enpresa gehienek eman zituzten datuen arabera konfiantza handia zegoen, 10-15 punturekin Madurok irabaziko zuela aurreikusten zutelako... Azkenean oso alde txikiarekin izan zen. Hori ulertzeko arrazoi guztiak identifikatzeko, nik uste, oraindik denbora behar dela. Halere, momentuz, batzuk aipa daitezke, adibidez: alde batetik, hauteskunde-kanpainaren diseinua, oso okerra izan omen zen; chavismoa nolabait saiatu zen Maduro nolabait Chavez bihurtzen, klon bat izango balitz bezala... Azkenean, ikusi da hori erabaki okerra izan dela. Maduro beraren perfila esplotatu beharrean... Bera langile izan zen, langileklaseko pertsona... Eta hori erabili beharrean, egin zutena izan zen, gutxi gorabehera, justu kontrakoa. Nire ustez hori akats handia izan zen. Bestetik, eskuinak diseinatutako kanpaina, oso maltzurra, baina oso eraginkorra izan zen. Aurreko urriko hauteskundeetatik aurrera, eskuina konturatu zen gaur egun Venezuelako hauteskundeak irabazi nahi izanez gero, perfil aurrerakoa erakutsi behar duzula, diskurtso eta programa aurrerakoiak aurkeztu eta defendatu behar dituzula; eta horretan sakondu dute. Gero, ja! Lehenengo aldiz, Chavezen figura goraiatu zuten, edo gutxienez errespetua erakutsi zioten... Eta nik uste horrek kanpaina horrek chavismoaren zati bat konbentzitzea lortu zuela. Kontuan izan behar dugu ere, hauteskunde-prozesu guztietan, mundu-mailan, badagoela hautesleria kulunkari bat, hau da, bozka gogorra ez dena, mugi daitekeena egoeraren arabera. Kasu honetan gertatu dena

izan da boto-transferentzia egon dela, gutxi gorabehera 600.000 bozka chavismoak galdu dituenak eta zuzenean eskuinera joan direnak. Aipatu ditugun arrazoiak garrantzitsuak dira, eta horiekin batera, nik aipatuko nuke arlo ekonomikoan gertatutako ere bai. Aurrekoan, Chavezek irabazi eta gutxira debaluzioa egitea erabaki zuten; horrek bertan dagoen inflazio handia azkartu zuen, zalantzarik gabe, prezioak igo ziren... Eta azkenean horrek jende askorengan nolabaiteko haserre piztu zuen eta eragina izan du hauteskunde-emaitzetan.

## “Efizienteago izan beharko dute arlo publikoan eta zerbitzu sozialetan; eta desestabilizazio-nahiari aurre egin”

—Eta etorkizuna? Zerbait aurreikus daiteke?

—Nire ustez, mugimendu bolivartarrak, edo gobernu bolivartarrak izan duen akats handienetako bat izan da, lehenengo momentutik, prozesua hasi zenetik, inefizientzia. Chavez zegoen bitartean, beno, nolabait Chavez, neurri handi batean, akats hori barkatzen zitzaien. Eta orain, Maduro presidentzian dagoenetik, nik uste, jendea askoz zortzagoa izango dela arlo horretan, eta efizientzia handiagoa eskatuko duela. Horrek esan nahi du gobernu berriak efizienteagoa izan beharko duela arlo publikoan, zerbitzu sozialetan... Hori gako handi bat izango da. Bestetik, desestabilizazio-prozesuarena dago: eskuinak aspalditik martxan jarri zuen

sabotaje-prozesua. Esango nuke hori “kolpe leun” horietakoa dela, hau da, egunero gutxi-edo nabaritzen dena baina azkenean errealitate politikoan eragin handia izaten duena. Orduan, nire ustez, alde batetik, gobernuak esfortzu handia egin beharko du desestabilizazioari aurre egiteko, eta bestetik, inportitatea murrizteko ere bai. Izan ere, sabotajeak egiten dituzte, adibidez arlo elektrikoan, edo arlo ekonomikoan espekulazioaren eta pilaketaren bitartez, baina gero ez da horren ondorio ikusten, jendea atxilotzen dutela edo... Eta nire ustez horrek ere eragina du, eskuinak ikusten duelako prozesuaren kontra egin dezakeela inolako ondorio-rik gabe. Orduan, nire ustez, oso garrantzitsua izango da hemendik aurrera desestabilizazio-prozesu horri aurre egitea, batez ere nolabaiteko bake soziala lortzeko eta estatuak problemarik gabe funtzionatu ahal izateko.

—Herri-mugimendua zein egoeratan dago?

—Nik uste herri-mugimenduak oso argi duela gaur egungo helburuek zeintzuk izan behar duten. Aurreko hauteskundeetan, Chavezek irabazi ondoren, zera planteatu zuten: alde batetik, kapitalari aurre egin behar zaiola, hau da, sozialismoa aldarrikatzen bada kapitalismoa gaintu behar dela, eta horretarako jabeago sozializatu behar dela gero eta gehiago, argi eta garbi, oraindik sektore pribatuak indar handia duelako arlo ekonomikoan; bestetik, burokratismoari aurre egin behar diotela, estatuaren barruan dagoen burokrazia mailak oztopatzen duelako iraultza prozesua, eta hori beste “etsai” bat da. Beraz, herri-mugimenduak egiten duen irakurketa oso zehatza da, eta oso egokia. Kontua da horri erantzun behar zaiola, herri-mugimenduak ez duela indar handia edo indar guztia prozesua baldintzatzeko; estatuaren barruan dagoen sektore iraultzaileak eta gobernuaren barruan dagoen sektore iraultzaileak lan komuna egin beharko dute herri-mugimenduekin.



## Nortasuna

Argazkilariaren nortasuna erakusten dute, nolabait esatearren, irudiok; Naiara Goikoetxea algortarrak egin ditu. Batzuk hainbat erakusketatan zintzilikatu ditu eta besteak bere koleziokoak dira; baina, berak dioenez, denek islatzen dute bere “*zigilua*”. Bere historiaren parte dira, bera agertu ez arren, koadroak margotzen dituenak legez. Goikoetxeak oso gustuko du zuri-beltza, “*betiko argazkigintzari leial*”. Bere lana ikus daiteke ondoko webguneetan: [www.flickr.com/photos/quehago](http://www.flickr.com/photos/quehago) eta [iamnai.com](http://iamnai.com).

Argazkiak: **Naiara Goikoetxea**







**Uribe Kostako bertsolaritza (1900-1980)** > Fredi Paiaren liburua

## Ez zen basamortua: bertsolaritzak badauka historiarik Uribe Kostan

**XX. mendeko Uribe Kostako bertsolaritzaren historia batu du Fredi Paia liburu batean, 1900etik 1980ra, ALBE sortu arte. Urtetako ikerketaren emaitza da: bertako koplak eta bertsolarien biografiak jasotzen ditu. Frogatzera dator, ALBE baino lehen ere, gurean bazegoela bertsogintzarik.**



Jose Alberdi, 1958ko Txapelketako partaidea

**Carlos Sotorengana** joan ziren 1991n Joseba Santxo eta Josu Landeta, grabazioa egin eta haren euskara aztertzeke asmoz; ALBE Algortako Bertsolari Eskolako kide ziren biak eta Euskal Filologia ikasle bigarrena. Eremu diglosikoan bizita elebiduna izan zen elkarrizketa, harik eta Soto kantatzen hasi arte: Santxok eta Landetak ezagutzen ez zituzten doinuak abesten hastea sorpresaz hartu zuten. Horrela hasi zen ikerketa bertoko bertsolaritari buruz eta, 22 urte beranduago, liburu-DVDa iritsi da: *Uribe Kostako bertsolaritza (1900-1980)*. ALBEko kide biek hasitako ikerketagaz jarraitu du Fredi Paia bertsolariak eta hamaika leku-kotza batu du, liburuaren ideari forma emonez: *“Puntuka abestutako bertso bat da eta azken puntua abestea tokatu zait”*.

Orain 15 urte egin zien elkarrizketa Bizarra Lepoan aldizkariak (orain UK) berari eta Unai Elorriagari bertso-eskolan, *Basamortuko loreak* tituluagaz: *“bertsolari bi ei ginen sekula ezer egon ez zen leku batean”*, Paia dioenez, liburuak frogatzen du lur emankorrean sortu direla bertsolariak gurean, eskola jaiotzean pentsatu ez bezala, Uribe Kostan bazegoelako bertsogintzarik haren aurretik

di Paia bertsolariak eta hamaika leku-kotza batu du, liburuaren ideari forma emonez: *“Puntuka abestutako bertso bat da eta azken puntua abestea tokatu zait”*.

**“ALBE aurretik egon da beste modu bat bertsoak egiteko: koplariak ziren”**

Orain 15 urte egin zien elkarrizketa Bizarra Lepoan aldizkariak (orain UK) berari eta Unai Elorriagari bertso-eskolan, *Basamortuko loreak* tituluagaz: *“bertsolari bi ei ginen sekula ezer egon ez zen leku batean”*, Paia dioenez, liburuak frogatzen du lur emankorrean sortu direla bertsolariak gurean, eskola jaiotzean pentsatu ez bezala, Uribe Kostan bazegoelako bertsogintzarik haren aurretik



“Eusebito” bertsolaria eta pandero-jolea

ere: *“ALBE 1980an sortzen da eta horregatik amaitzen da liburua urte horretan; bertsoak egiteko modua aldatzen delako, guri irakatsi egin digutelako bertsolaritza, baina aurretik egon da mundu bat: koplariak ziren, musikagaz harreman estua zeukaten eta asko pertsona bitxiak ziren”*.

Eta horietako batzuen biografiak ere

jaso ditu liburuan, kantu, koplak eta pasadizoak batera. Izan ere, egitasmoaren beste helburu bat izan da euren lanaren garrantzia aitortzea: *“XX. mendean euskal kultura bigarren mailako gauza zan. Liburua dator esatera kontrakoa: herri-kulturari eutsita eutsi diola euskarak ere, hein handi batean; eta horrek emoten*

*digula indarra gaur ere jarraitzeko”*.

Besteak beste, II. Errepublikaren garaian txapelketak izan ziren, Udalek sariak emoten zituzten, 1958an Bizkaiko lehen bertsolari txapelketan zortzi finalistetan artean bost eskualdekoak izan ziren, e.a. Gainera, Alfonso Irigoienek, Espainiako guda zibilaren ostean bertsolaritza berpizten ibilitakoak, idatzi zuen bertsolaritza bizirik zegoela kalean, agerian, Txorierriko itsasaldean: *“eta hori da gure eskualdea”*.

Balizko basamortua bihurtu da lora-

**“1958an Bizkaiko lehen txapelketako bost finalista bertokoak izan ziren”**

tegi eta ALBE badago hamaika lora berrir, lehengoetatik sortuak, bertsolaritzaren jagole. Lora horietako bat da Maider Baraño gaztea eta aurkezpenen kantatu zuen moduan: *“Nahiz eta niri urte horiek/ geratzen zaizkidan urrun/ izan behar dugu gure herrikol historiaren arduradun/ Orain artean entzun ez denal/ behar dugu orain entzun/ Uribe Kostan bertsolariok/ nola historia dugun.”* ○

**Fredi Paia** > Liburuaren egilea eta bertsolaria

“Emakume barik ez zen bertsolaririk egongo, transmisioa euren bitartez egin da: emakumeek transmititzen dute kultura”

—Zertan neur daiteke ikerlan honen balioa edo garrantzia?

—Liburu honek garrantzia deko hainbat gauzengatik. Batetik, bertsolariok gure burua kokatzeko prozesu historiko baten barruan, eta gazteek ikus dezaten soka baten jarraipena dala. Bestetik, datu oso interesgarriak ditugu, ikergai dugun sasoiaren euskararen atzerakada etengabea delako: sortzen dira bertsolari elebidunak, beste batzuk kartzelan daude,

badaude militante klandestinoak ere gerraostean euskararen aldeko borrokarekin eta politikarekin oso lotuta, batzuek euskara transmititzen dute eta beste batzuek ez... Oso interesgarria da, izan ere, bertsolaritza beti ikertu da inguru oso euskaldunetan eta hemen ikertzeak emon digu datu pila bat jakiteko zelan jokatzeko zuten, era batera edo bestera. Garrantzitsua da euren lanari balioa emoteke ere: familiek askotan trabak


ipintzen zizkieten eta ez zieten garrantzirik emoten; tabernetara joaten ziren, jaietara, lagunekin, bertsoak botatzen zituzten... eta zer! Andra batek ez zuen nigaz hitz egin gura izan, eta esan zidan: “Hamaika bider agindu nau amak aitaren bila tabernara, ez dot ezer jakin gure”. Gero bere nebak elkarrizketa emon zidan, baina errealidade horrekin ere topo egin dugu. Eta, batez ere, kontatzen direlako istorio pila bat ulertzeko

zer gizarte mota egon den hemen, Uribe Kostan.

—Liburuan aipatzen duzu andrazko bertsolarien garrantzia, baina orriotan emakume gitxi; zelan da hori?

—Emakumeak esfera publikotik kanpo zeuden, ez zitzaizkien publikoki agertzen eta datuak batzea oso gatzat izan da. Getxon baegoan andra bat Txandresa esaten ziotena, Perune baserrikoa. Esaten zuten sorgina zala, kobazuloetan biltzen zituela sorginak eta bertsotan egiten zuela han. Bazegoen beste andra bat Plentziakoa, Txatxarro baserrikoa, eta hori ere famatua zan, zalako politikoki oso kritikoa, eta ez zuelako ordaintzen fiolatoa: pasatzen zuen itsasadarra biluzik ortua-

riak buruan, zergak ordaindu barik saltzeko gero. Biak dira oso indartsuak, gizartearen inertziari aurre egiten zioten eta horregatik ailegatu da gugana euren historia. Baina, zer batu dugu beti? Bertsolarien etxeetan amak kantariak izan direla eta badirela, bertsozaleak, eta koplak irakatsi dizkiete umeei, bertsotan egin diete, kantatu diete; baina gizarte egoeratik plazetan ezin zuten abestu. XV. mendean debekatu zieten plazan abestea, Foru-arau baten bidez. Zapalkuntza egoera da. Baina emakume barik ez zen bertsolaririk egongo, transmisioa emakumeen bitartez egin da; eta nire ustez ez da gure eskualdeko kontua bakarrik, orokorra da: emakumeek transmititzen dute kultura. ○





**BETIKO**  
IKASTOLA

*Kalitatezko irakaskuntza euskalduna*

- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
- Ingelera 4 urtetik. Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, merienda, zaintza.
- Eskolaz kanpoko aktibitate ugari.
- Ikastolen Elkartearen Leioako Ikastola bakarria



Ikastolen Elkartea

Deitu eta informa zaituz  
Tlf: 94 464 23 64  
94 464 33 07  
Fax: 94 464 22 05  
Helbidea: Artatza auzoa 84  
info@betikoikastola.net  
www.betikoikastola.net

**GAVRKO**



GIZONENTZAKO  
MODA

Telletxe 5  
ALGORTA  
Tf. 94 460 70 84

[zinema]

## Dokumental-saila prest

**Itsasadarreko aldeak**, Getxo Sound eta punka, 90. hamarkadako **musika-historia**



Info+: [goteo.org/project/160metros](http://goteo.org/project/160metros) eta facebook-en

**Alde biak**, itsasdarren ezker eta eskumaldea, 90. hamarkadako hiri-eraldatzea rockaren ikuspuntutik jorratzea da *160 metros. Una Historia de Rock en Bizkaia* dokumental-sailaren helburua. Bizkaiko Zubia bitarteko eta lekuko, 160 metrokoa da Portugalete eta Getxo arteko distantzia; hori sinbolotzat hartuta garaiko Ezkerraldearen eta Eskumaldearen arteko alde sozioekonomikoen musika irudikatu gura du lanak.

Alvaro Fierrok eta Joseba Gorordok zuzendu dute StereoZona web-telebistak ekoitzi duen lana. 5 ataleko *dokuweb*-a da eta herri diru-bilketaren bidez gauzatu dute. Sarean ipiniko dute ikusgai, lehenengo atala hilaren 23an estreinatu dute, 20:30ean Bilborock aretoan.

Nondik norakoak kokatu asmoz, denbora-marraren gainean lau datu ipini dituzte: 80. hamarkada, desindustrializazioa, punka eta Euskal Rock Erradikala; 1992 Eskorbutoren azken kontzertua

(Ezkerraldean punkaren amaiera) eta Guggenheim eraikitze lanen hasiera zein itsasadarra garbitzeko inbertsioa; 90. hamarkada eta Getxo Sound, 1997 Getxo Sound-en beheraldia eta Guggenheimaren inaugurazioa. Egileen azalpenetan, "rock eszena ezberdin bi, eta agian bizitzari begiratzeko modu bi; Ezkerralde-

**«Hilaren 23an lehenengo atala, Bilborocken; sarean ere ikusgai laster»**

*koa: punk-erradikalagoa, letra aldarrikatzaile eta sozialagoak (Eskorbuto, Parabellum, Zarama e.a.), euskaraz eta gaztelaniaz, ostera, Eskumaldean: Getxo Sound (El Inquilino Comunista, Lord Sickness, Los Clavos e.a.), Sonic Youth-en noise eta Nirvanaren grunge giroari jarraituz, oro har ingelesez abesten... 20 urte eta gero, distantzia "laburtu" ei da... Baina, haiek barik agian gaur ez lirateke McEnroe, Mobly Dick, We are Standard, Olympic, Atom Rhumba, Split77, Subversion X e.a.* ○

## Disko labor barria

Santurtziko **Zarama** rock talde ezagunak hiru kantuko EP-a plazaratu du



Roberto Moso buru duen taldea Euskal Rock Erradikala delako Ezkerraldeko kide ezagunenetakoa da

**Apirilak** azken arnasa hartu zuen egunean aurkeztu zuen Ezkerraldeko Euskal Rock Erradikaleko kide ezagunenetakoa den Zarama taldeak lan barria.


Bihotzeko suari ezetik ezin esanda edo, hiru kantuk osatzen duten EP edo disko laborra plazaratu dute. Horieta bat, "Sinestezina", diskoari berari izena emoten diona, daborduko sareko hainbat webgunetan entzun daiteke. Taldearen bederatzigarren argitalpena osatzen duen lan hau Baga-Biga Produzioak zigiluagaz kaleratuko dute, eta hortik aurreratu dutenez, "Sinestezina. Rock and rolla

punta batetik bestera. Zaramak taula gainean iraun nahi du eta horretarako hona hemen altxor txikia". Hiru abestiko diskoa lau eurotan dago salgai.

1977an sortu eta 1994an agurtu (ez betiko, argi dago) ziren Zaramakoak, orduko hamaika gazteren eta gaurko ez hain gazteen, eta baita aurreko belaunaldien uretatik edan duten gazteen imaginarioan abesti eta doinu andana utzi ostein. Orain dela lau urte inguru itzuli zen oholtza gainera Roberto Moso buru duen taldea, ule urdinak aieratuz orduko eta gaurko aldarrikapenak... Askoren pozerako. ○

## diskoak

**Uhinak**  
EH Sukarra  
Elkar



Zortzigarren diskoa aurkeztu du talde ezagunak, Elkarreko webguneak dioenez "hogei urte pasatxoko historiaren amaiera bikaina izango dena". Taldearen berezko doinudun 10 kantuk osatzen dute lana; musika Mikel Gorosabelek sortu du, Asier Serranorenak dira letrak, Mikel Artiedak jo du baxua eta Heloy Galanek bateria.

**Mistress Games**  
Audience  
BideHuts



Gernikako taldeak hiru euskarri desberdinetan plazaratuko du lan barria: "7"-tako biniloa, CD bat eta abesti gehigarri baten deskargarako kodea jasoko du bilduma bakarrean". Zazpi dira taldeak eskainiko dituen abesti barriak, Garate Estudioetan grabatutako lana da, Kaki Arkarazo musikari eta teknikariaren gidaritzapean.

**Mandoilek**  
Mandoilek  
Oinuka



Hainbat taldetan ibilitako Igon Olaguenaga trikitalaria buru daukan Amurrioko Mandoilek taldeak estreinako diskoa plazaratu du. Olaguenagaz gainera, Unai Mendibil (ahotsa), Andoni Vera (gitarra), Dabid Ferreño (baxua) eta Asier Linaresek (bateria) osatzen dute taldea. Doinu dantzagarritz gainezka datoz, rumba, kumbia, reggae edo ska erretmoz blait

## kontzertua > palestinar doinuak

Hil honetan palestinar doinuak gozatzeko aukera egongo da Bizkaiko hiriburuan. Izan ere, Bilboko Udalak kudeatzen duen Bilborock aretoaren hil honetarako egitarauak iragarri duenez, Palestinian Unit (Palestina), Maysa Daw (Palestina), Nabil Mansour (Palestina-Katalunia) eta Adarrots (Euskal Herria) taldeek zuzeneko emanaldia eskainiko dute maiatzaren 17an, barikuan. Ekitaldia gaueko 21:00etan hasiko da, eta Bilborock aretoan ipini dute zita. Paz Con Dignidad-Bakea Eta Duintasuna gobernuz kanpoko erakundearen ekimenez antolatu da kontzertu-sorta hau, eta aurreratu dutenez sarrera dohakoia izango da.

Info+: [www.bilbao.net/bilborock](http://www.bilbao.net/bilborock)

## lehiaketa > Bilbao Hiria

Bilbao Hiria 25. Pop-Rock Lehiaketara lanak bidaltzeko epea zabalik dago. Bilboko Udaleko Euskara, Gazteria eta Kirol sailek antolatzen duten musika lehiaketa ezagunaren parte hartu gura duten taldeek maiatzaren 31 arte bidal dezakete maketa. 3 musika kategoriatan lehia daiteke: Pop-rocka, Metala eta Beste joera batzuk. Komeni da parte-hartzeko betebeharrak eta eginkizunak ondo irakurtzea; horretarako lehiaketaren oinarriak behean adierazitako helbidean lor ditzakezue. Besteak beste, taldekide guztiek 1978 eta 1995 urteen bitartean jaiotakoak izan beharko dute.

Info+: [www.bilbao.net/bilborock](http://www.bilbao.net/bilborock)  
Harremanetarako: 944 151 306  
bilborock@ayto.bilbao.net

etorri eta ikusi!!

**ORIXA**

liburudenda

Alargorta 8 (Eskal Herreria kaleko bua)  
Tf. 94 491 68 05  
Algorta

Getxoko Andra Mari  
Gasolindegia

Txartel hau  
aurkezten baduzu  
**%50eko**  
deskontua  
izango duzu zure  
autoaren garbiketan

Getxo eta Berango artean  
Tf. 94 430 15 00  
(15 eguneko epemuga)

**I**

**Iñaki Bitxitegia**

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER  
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 Tf. 94 430 23 45  
Telletxe 1 Tf. 94 460 27 41

Algorta

[literatura]

## ArgIHizkiak lehiaketa

Argazkietan oinarritutako **testu laburren** lehia **martxan da**, bigarrenenez


**Aurten** Uribe Kostara zabaldu da iaz Getxoko hainbat eragilek antolatutako eta argazkilari getxoetarren lanetan oinarritutako ArgIHizkiak lehiaketa. Egizu Getxo Euskaldun elkarteak eta UK aldizkariak antolatzen dugu ekimena, hurrengoakaz elkarlanean: Erandioko, Leioako eta Berangoko udalak, Uribe Kostako Mankomunitatea, Berbalamiñe eta Leioako Berbalagun taldea, Berbots, Bizarra Lepoan eta Aitxu! euskara-elkarteak. Ekimenaren helburu nagusiak dira jendea euskaraz idaztera eta irakurtzera animatzea, eta Uribe Kostako argazkilariak eta euren lana sustatzea eta zabaltzea.

Hala, Leioa, Erandio, Sopela, Berango, Gorliz eta Algortako 12 argazkilari

**«Lanak bidaltzeko epea zabalik, maiatzaren 31ra arte»**

profesionalek eta zaletuk parte hartu dute: Aitor Galbarriatu, Fede Merino, Iker Basterretxea, Willy Uribe, Elker Azketa, Sara de Diego, Nagore Ayo, Juan Gomez, Natxo Pedrosa, Eduardo Camino, Luis de Isusi eta Peru Isasik. Beraz, eurek helarazitako 12 irudiek iradokitzen dutena izango dute berbagai ArgIHizkiak-en lehiatuko diren testuek. Lehiaketa gure es-

liburuak



**Intemperies (babes bila)**  
Lourdes Oñederra  
Erein

Hizkuntzalari, irakasle eta idazle donostiarrak egunerokotasuna hartu du ardatz aurkeztu barri duen nobelan: *«Bizitza zaila baita, erraza denean ere, dena ondo doanean... Egutero bizitzaren erronka... zaila da komunikazioa...»* Amodioak ere badu bere tartea lanean.



**Venusen delta**  
Anais Nin  
Txalaparta

Garazi Arrulak itzuli ditu Anais Nin (Neuilly, Frantzia, 1903-Los Angeles, AEB, 1977) idazleak, diru premiak behartuta, enkarguz idatzitako ipuin erotikoetako batzuk. 15 dira, hain zuzen, lan honetan jasotakoak; aipamenagatik ez bada ere *«Euskalduna eta bijou»* nabarmen liteke.



Nora bidali: 619 935 541 edo [argi.hizkiak@gmail.com](mailto:argi.hizkiak@gmail.com)

kualdean antolatzen bada ere, 16 urtetik gorako edonork bidal dezake testua maiatzaren 31 baino lehenago; testuak euskara batuan edo euskalkian idatz daitezke, prosa, olerki, bertso, haiku e.a. izan daiteke, eta kategoria bi daude: testu labur-laburrena (gehienez 160 karaktere) eta laburrena (gehienez 100 berba). Kategoria bakoitzeko 200 euroko sari bana dago; eta testu finalistak ere erakusketan agertuko dira. Izan ere, irailetik aurrera, argazkiakaz eta testu finalistakaz eskualdeko hainbat herritan erakusketa ibiltaria prestatuko dugu. Oinarriak eta argazkiak:

info+: [www.egizu.org/literatura/argihizkiak](http://www.egizu.org/literatura/argihizkiak)

[kirola]

**Esteban Gaubeka** > pala-jokalaria

“Garrantzitsua da finalera heltzea, noski; baina, behin bertan, irabazi gura dut”



Munduko lau pala-final jokatu eta txapel bi irabazi ditu Gaubekak

**Azkenengoz** aurten jokatu du munduko pala finala Esteban Gaubeka armintzarrik; bikote zein banakako finaletan aritu da, nahiz eta txapelik ez eskuratu; agerian da Armintzakoak urteak daramatzala lorpen profesional ugari erdiesten: besteak beste, 2008an eta 2010ean banakako munduko txapelak irabazi zituen.

—**Aurten ere, beste askotan bezala, munduko pala-finala jokatu duzu, zer sentazio izan duzu?**

—Bueno, gazi-goza izaten ari da aurten-go denboraldia; izan ere, banakako eta binakako finalak galdu ditugu, eta bai, noski, garrantzitsua da finalera heltzea; baina behin hara helduta, beti gura izaten duzu irabazi. Binakako pala-txapelketan ez nintzen oso ondo aritu; bizkarreko mina izan nuelako, baina Donostiako finalean, ostera, hobeto jokatu nuen. Bestalde banakako txapelketan oso ondo aritu naiz, baina, finalean presioa dela-eta, agian, ezin izan nuen guztia emon, eta azken finean, horrek emoten dizu txapela, akabuko partidak dena erabakitzen du.

—**Hemendik aurrera, zer erronka?**

—Maiatz aldera Open Internacional txapelketa hasiko da, eta horretan buru-belarri arituko gara. Iaz, ezin izan genuen txapela eskuratu; beraz, ea aurten txapela irabaz dezakegun, iazkoa ahazteko. Txapelketa honek ekainera arte iraungo du, eta ondoren, uda-giroan sartuko gara; herriz herriko zirkuitua egiten, hori ere polita da

**«Une honetan, burua Open Internacional txapelketan daukat»**

Bilboko frontoitik irten, eta herri-giroaz gozatzeko. Horrek ere lanean jarraitzea animatzen gaitu.

—**Pala-mundua osasuntsu al dago?**

—Bada, guztioi bezala, ditxosozko krisiak ere eragiten dio; hala nola, apustuek behe-eragin dute frontoi gehienetan. Jokatu dudaz azken txapelketan, ostera, ikusle ugari egon dira, 1.000 pertsona inguru. Beraz, horrek jarraitzeko aukerak emoten dizkigu, eta pozik gaude. Gustatzen zaizuna eginez bizitzea zorte handia da. ○

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

**Kantxa Kirol moda**



**350 M<sup>2</sup>**  
KIROLERAKO GUZTIA!!

**URIBE KOSTAKO  
KIROL DENDA**

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA  
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXEKO ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

**Lacofris, s.l.**



Tf. 94 430 52 00 Kasune 18 · ALGORTA

**Irati Perez Artze** > Kordoba (Argentina)

“Hitz sexistak entzungo dituzu burua betetzeraino”

Hego Amerikagaz lotura aspalditik datorkio sopoloztar honi: 2011n zapaldu zuen lehenengoz, unibertsitateko praktikak Boliviako eskola batean egin zituenean. Geroztik, bueltatzeko gogoagaz egon da eta 2012ko urrian lortu zuen Argentinara joatea, Buenos Airesera lehenik, Kordoba hirira eta Txilera (Santiago hirira) ondoren. Horietatik Kordoba aukeratu zuen orain bilatzen duenerako aproposena delakoan: bizimodu barriak eskaintzen duenaz ikastea. Denbora gehiegi lapurtzen ez dion lana topatu, hazi eta ikasi, hori da Perezek gura duena.



Ikasten zebilela ezagutu zuen Irati Perezek Hego Amerika eta txunditu zuen. Ahal bezain laster itzuli da hara eta, noiz bueltatuko ete da etxera?

#### Zer bisitatu eta zer ez galdu

Kordoba energia da, gaztea, dibertigarria, etengabea, beroa, kulturala. Argentina osoko ikasle-topalekua da, beraz leku aproposa herrialde osoko ohiturak mugitu gabe dastatzeko. Hiriaren paraje ederrenak inguruetan daude: mendizerra itzelez inguraturik dago, erdigunetik ordu batera hasten dira ibaiak, menditxoak, eskalatzeko haitzak, herrixka txikiagoak, e.a. Munduko tokitxo hau zapaldu eta mendiko botak jantzita inguruko parajeetan ez ibiltzea bekatua da! Askotan gauza txikienek dute xarma handiena: adibidez, edozein plazatan edo zelaitan etzan, mate beroa esku artean, bertokoekin arratsaldea partekatzen... Horrela senti-


tzen zara benetan tokian eta tokiko.

#### Kontuz

Beldur handia sartzen digute, baina nahikoa da zentzudun izatea inguruan daukazuarekin! Dena dela, kontuz autokin, batzuk arrakatsak dira-eta bolantea eskuetan! Kaleko hitz sexistekin ere kontuz, burua betetzeraino entzun beharko dituzu! Eta kontuz ere alfajore, kriollito eta enpanadekin: zein goxoak diren, euren mende erortzeraino!

#### Harritzeko modukoa

Kontrasteak: paseoan zoazela, asko daukanaren nagusikeria eta ezertxo ere ez daukanaren gosea ikustea kale berean, elkarri ia begiratu ere egin gabe. Hiri handietan nabari da batez ere, eta hasieran gogorra egiten da. Baina denera ohitzen ei gara, degradazio gradu horretara ere bai: “Tristeia da esatea, gero!”. ○



#### Nor da

**Nongoa**  
Sopelakoa

**Adina**  
23

**Zertan dabil**  
Etxetik hain urrun bizimodu barriak eskaintzen duenaz ikasten: jendea, ohiturak eta parajeak ezagutu, hazi eta ikasi.

**Ikasketak**  
Heziketa Berezian lizentziaduna

**Noiz arte**  
Auskalo noiz arte, baina bisitan etortzeko desiatzen dago.

#### Non dago

**Lurraldea**  
Argentinako Errepublika  
(2.780.400 kilometro koadro)

**Hiria**  
Kordoba (Kordoba probintzian),  
Buenos Aires hiriburutik 700 kilometrorra

**Azalera**  
576 kilometro koadro

**Kokapena**  
Argentina erdialdean

**Biztanleria**  
1.329.604 biztanle

**Hizkuntza**  
Gaztelania da ofiziala, baina jatorrizko hainbat hizkuntza dago, asko desagertzeaz.

**Dirua**  
Pesoa

## Aritza Bergara

Atal honetan agertzen diren testuak eta ilustrazioak “Euskal Herriko Mitologia. Jentilen aztarnen atzetik” proiektutik ateratakoak dira. Adarmendi eta Orritz euskal kultur elkarteek bultzatutakoak. Materialak ikusteko edo informazio gehiago lortzeko [www.euskalherrikomitologia.com](http://www.euskalherrikomitologia.com) webgunera jo.

# Jentilak

**Erraldoiak jarraitzeko, Basajaun-Basandere eta Tartalo ezagutu ostean, Jentilen momentua ailegatu da. Fisikoki deskribatzeko, tamaina izugarriko pertsonaiak direla esan beharra daukagu. Ez dira Basajaunak bezain iletsuak, eta Tartalo begi bakarrek bada, kasu honetan Jentilek bi dituzte. Beraz, erraldoien aurrean egonda erraza da jakitea zeintzuk diren, zein arrazatakoak.**

Hori bai, Jentilak ere lur-azpian edo urruneko haitzuloetan bizi dira, beste izakiak bezalaxe, sinesmen berrietik at egoteko.

Indar handia dute, eta euskal geografia osoan zehar haiek aisialdi hutsean aire-ra jaurtiriko hainbat arroka ikus daiteke sakabanatuta.

Makalak bezain garaiak, haritzak bezain indartsuak, azeriak bezain argiak eta egundokoak, baselizei, gizakiei edota beren fedea uztaizten dietenei botatzen dizkieten harkaitzak bezalakoak.

Pertsona batzuk kristautasuna iristegaz batera desagertu egin zirela esaten zuten, baina bildutako azkeneko datuek badirudi kontrakoa baieztatzen dutela.

#### Kondaira

Esan ohi denaren arabera, nahiz eta inork ez esan noiz gertatu zen, egun batean jentilak artoaren gari-ale tontor batetik hurbil bilduta zeuden, berbetan haien artean eta, edonoiz, barre izugarriak botatzen, bailara osoan entzuten zirenak.

Gizakiak beraien baserrian sartu ziren, beldurtuta, Martiniko izeneko bat izan



Jentilak. Ilustrazioa: Daniel Castello

ezik. Barreak non eta hara joan zen, zuzenean. Eta jentilak artoaren tontor horren ondoan ikusita, bertan agertu zen, zarpail eta bere tamainarako izugarriak ziren botak jantzita. Eta erraldoien artean jarri zen, normaltasun osoz.

Jentilek harriturik begiratu zuten, haren ausardiagaz txundituta. Hark, inolako beldurrik azaldu gabe, erronka luzatu zien. Abiada hartuz gero, esan zien, bere aurrean zegoen ale tontorra esfortzurik barik saltatzeko gai izango zen, haiek baino hobeto gainera.

**«Makalak bezain garaiak, haritzak bezain indartsuak, azeriak bezain argiak...»**

Jentilek, barre algaraka, aparteko arazorik gabe egin zuten salto, gizakiari saia zedila esanez. Eta horixe egin zuen. Metro batzuk hartu zituen, korrika hasi eta bultzada hartuz... ale tontorraren oinarria erori zen Martiniko gure laguna.

Jentilen algarak haran guztian entzun

zitezkeen bitartean, gizakitxoak alde egin zuen, burumakur. Behar beste urrundu zenean, korrika hasi zen atzerantz begiratu barik eta basora iritsi arte. Bertan sartu zen, sasitza batzuen atzean ezkutatu.

Jadanik Jentilak konturatu ziren. Ideia ez zen salto egitea, Martinikoren zapata handietan ale batzuk eramatea baizik. Orduan entzun zitezkeen jada jentilen oinkadak, haren jokaldiaz ohartuta. Erraldoiek aurrerantz egin zuten, eta, topatu ez zutenez, minutu batzuen buruan itzuli ziren, arnasestuka. Ozen, algaren artean, oraindik itzali gabe zituzten algaren artean, alegia, hurrengo abestia abestu zuten:

“Gizakiek abesti hau ezagutuko balute, ongi aprobetxatuko lukete: hostoa sortzean, erein artoa, hostoa erortzean, erein garia; San Lorentzon, erein arbia”.

Eta jentilak bere bizitokira itzultzea itxaronez, Martiniko bere herrirantz abiatu zen, beragaz nekazaritzako sekretua eramanez.

Kondaira bera kontatu ohi da zenbait tokitan, baina Jentilak Basajaunagaz ordezkatur. ○



[badaukazu non aukeratu]

[pintxotan]

Taberna eta jatetxe asko dugu gurean. Gida honetan aukeraketa xumea aurkeztu gura dizugu, aniztasuna albo batera utzi barik, eta gozaten has zaitezten.



**portu zaharra bar**

Portu Zaharra kalea 35  
48991 Algorta - Getxo (Bizkaia)  
Tf. 94 460 20 33  
portuzaharra@portuzaharra.com  
www.portuzaharra.com



**SOLAETXE**

Eguneko menua      **Jatetxea**      Karta  
Asteburuko menua      Oilasko erretegia

Sarriena auzoa 166 - 48940 Leioa (Bizkaia) Tf. 94 463 24 87 Fax. 94 431 69 55 www.restaurantesolaetxe.com



**La Triangu.**

Arriatera 83, SOPELANA Tf. 94 676 34 07



**berezi**

Hanburesak      Ogitartekoak  
Sanwichak      Plater konbinatuak

SABINO ARANA 34 48640 - BERANGO  
ESKAERAK: 94 668 10 64 (BERTAN JASOTZEKO)



**BODEGUILLA BUTRON**

Bidebitarte, 4 y 5 - Algorta (Getxo)  
94 430 01 74  
www.bodeguillabutron.com



**txakoli mota gane Tx.**  
txakolina

Leioa-Unbe errepidea 34 (Akarlanda Parkea) Gohierri-Erandio  
Tf. 94 467 00 07 www.txakolimotagane.com



**UNAI TABERNA**  
JATETXEA

C/ Alangobbarri n°3 C.P 48991 Getxo Telf. 94 466 16 61



**CAFETERIA COSMOPOLITA**

Andres Larrazabal 5, 48930 Areeta-Getxo  
Tf. 94 608 51 34 - Mug. 609 44 08 80



**JAN-TOKI ORMAZTEGUI**

Eguneko menua  
Menu bereziak  
Karta  
Erreserbak:

94 476 2389  
607 21 89 61  
LUTXANA-ERANDIO



**GURE ETXEA taberna**

HAMBURGESAK, PINTXOAK ETA GIRO EDERRA  
Caja de Ahorros, 14 - Romo / T. 94 463 68 80

Zure taberna edo jatetxea hemen agertzea gura baduzu ipini gugaz harremanetan:

**94 491 13 37**  
**publiuk@aldizkaria.biz**



**GOSARIAK PINTXOAK**

KOPAK, MUSIKA ETA GIRO EDERRA  
**SOPELA**  
Ripa Kalea 1 (Udaletxe atzean)

## Pikillo-krema eta gazta

ahuntz-gazta zaleen bekatua



Pikillo-kremaren zaporeak sekulako zaporea eragingo dio pintxoari

**Pikillo-kremagaz** batera, ahuntz-gazta ere protagonista da gaur Laiak tabernatik dakarkizugun pintxoan. Horiez gain, gozotutako tipulak, eta pikillo-piper-kremak zapore ederra emango diote pintxoari. Pintxoagaz hasteko, pikillo-piper-krema egin beharko dugu; hori egiteko, berakatzat txikitu eta zartaginean gorrituko dugu, ondoren, pikillo-piper txikitua botako dugu, eta azkenik, esnegainagaz nahastuko dugu. Dena ondo nahastu, eta gatz apur bat bota ostean, prest izango dugu pikillo-piper-krema; horrela, ogi xaflaren gainean krema apur bat jarriko dugu. Horren gainean, xafla bat kalabazin arrautzaztatu prestatuko dugu. Pintxoagaz jarraituz, ahuntz-gazta xafla bat moztu, eta tipula gozotuz

inguratuko dugu; hau da, zartaginean tipula gozotua jarriko dugu, eta gainean ahuntz-gazta, horrela tipula gaztari itsasten joango zaio; gazta soilik pare bat minutu jarriko dugu sutan desegin ez dadin. Tipula gozotua egiteko, nahikoa izango da ontzi batean azukrea eta tipula jarri eta mikro uhinetara sartzea 5-10 minutuz. Tipulaz inguratutako gaztaren gainean beste kalabazin xafla arrautzaztatu kokatuko dugu. Eta pintxoaren gainean, azkenik, pikillo-krema apurtxo bat jarriko dugu. Hala, pintxo gozozagozagaz disfrutatzeko aukera izango duzu. ○

**Osagaiak:** ahuntz-gazta, pikillo-piperra, berakatzat, esnegaina, kalabazina, arrautza, tipula, azukrea, gatzat, olio



**Jurikaldai**

JOKIN GARATE BAYO      KIMETZ GARATE AZURMENDI  
Neguriko Etorbidea 9      Aingeruaren etorb. 4B  
T: 491 14 87      (sarrera, Jata Mendia) T: 480 01 87  
48990 NEGURI      48990 GETXO



**BASARTENA**

**URDULIZ**

Teléfono: 946 761 128



**JUAN-MARI**

Harategia eta txarkuteria

**ARTESANA**

LAS MERCEDES 31 • Tf. 94 464 41 25  
**AREETA**




**KONTXI ZUAZUBISKAR**

**URDAITEGIXA**

Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko, Pate eta Gaztietan!!

Alangobbarri 10, ALGORTA  
Tf. 94 491 02 93



**TXIBERRI edantokia frontoi partikularra**

Aita Gotzon 4, URDULIZ  
Tf. 94 676 07 15



**Taberna Berri**

Sarrikobaso 4 -ALGORTA  
Tf. 94 430 64 93

**ITXASGANE**  
prentsa • aldizkariak  
GETXOKO KIROL PORTUA  
Apiriluzeko z.g. • Tf. & Fax: 94 491 53 21  
ALGORTA • GETXO

Torreña 2  
48990 ALGORTA  
94 491 12 71  
iratia@gmail.com

*irati*  
OPARIAK MODA GAZTEA

**GOIZEAN**

"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez pentsa"  
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Lixareriak  
Orduña Mendatea 1  
Tf. 94 430 22 13  
GETXO

**zure publizitatea hemen!**

publiuk@aldizkaria.biz

Tf. 944 911 337

[horoskopoa]

**URA**



**(Abenduak 21 urtarrilak 19)**  
Azken urteotan huts egin ostean, aurrean ibilaldira joateko aukera izango duzu lagunak: hartu bokata eta motxila, eta aurrera! Zubia igaro eta bertan dago Portugalera!

**OTSOA**



**(Urtarrilak 20 otsailak 18)**  
Irrikan zaude aspaldi eta oraingoan bai, itsasoan bainatu ahalko zara. Ura fresko egongo da oraindik, baina egun berotsuak etorriko dira eta eskertuko duzu: gozatu bainuagaz!

**ADARRA**



**(Otsailak 19 martxoak 20)**  
Beti berandu, beti azken unean... Azterketak bertan dituzu eta orain estu zabilzta! Lasai egon, hartu arnas eta ikasi, oraindik garaiz zabilzta. Eta hurrengoan badakizu...

**AITZURRA**



**(Martxoak 21 apirilak 19)**  
Izerdia bota ostean orain duzu garaia ortuan landatutakoak batzen hasteko, zorionak! Baina hainbeste tomate daukazu, non laguneri oparitu beharko dizkiezun, galduko ez badira!

**HOSTOA**



**(Apirilak 20 maiatzak 19)**  
Zorionak zuri! Urtebetetzea ganoraz ospatu behar duzu aurten. Planik eta aukerarik ez duzu faltan izango, eta Ibilaldian azken errematea egin zenezake. Ondo pasa eta gitxi gasta!

**EGUZKIA**



**(Maiatzak 20 ekainak 18)**  
Kontsumo-taldean sartu zinenetik osasuntsuago jaten duzu eta kolore polita daukazu masailetan. Hurrengo urratsa kirola egitea: uda baliatu uger egin eta bizikletaz ibiltzeko.

**GARIA**



**(Ekainak 19 uztailak 18)**  
Triste zabilzta azken aldian, baina alderdi aldatuko zaizu laster, lagunek opari ederra egingo dizute eta alkarregaz gozatu ahalko duzue: ez dira zuzag ahaztu, ikusten?

**LASTOA**



**(Uztailak 19 abuztuak 17)**  
Gimnasioan izena emon duzu, urtero legez, ea pare bat astetan miraria gertatu eta ikasturtean zehar pilatutako pisua kentzen duzun. Baina mirariak badakizu nori eskatu behar zaizkion...

**IRATZEA**



**(Abuztuak 18 irailak 16)**  
Ohi legez, ondo baino hobeto amaituko duzu ikasturtea eta azterketa danak gaingintuko dituzu, ziu! Oporrak goiz hartu eta bidaiari zoragarria egin ahalko duzu, ekainean merkeago dira-eta.

**META**



**(Irailak 17 urriak 16)**  
Gurasoak eztabaidatuko duzu ikasketak direla-eta, urtero sasoi honetan legez. Daborduko jakin beharko zenuke ezinezkoa dela eurei ziria sartzea, ikertzaile finak dira...

**HAZIA**




**(Urriak 17 azaroak 15)**  
Ezezagun batek lora sorta handi bat oparitutako dizu eta aztoratuko zara erabat. Hain xarriant zaude egunotan sobera hautagai daukazula: norena izango ete da oparia?

**NEGUA**



**(Azaroak 16 abenduak 20)**  
Sekulako bidaiari ederra egingo duzu laster, eguzkiak gogor jotzen duen herrialderen batera, hondartzan botata egoteko asmoagaz. Aprobetxatu orain, udan ez duzu-eta horrelako aukerarik izango.



Kopiak  
**SALGAI**  
UK aldizkariaren  
bulegoan




Uribe Kostako  
aldizkariaren  
ekoizpena



denborapasa

HITZ GURUTZATUAK



LUMA aldizkariaren eskutik

Ezker-eskuma

1. Burugabea, zentzugabea. 2. Haserrazteraino zirikatu. 3. Musika-nota, eskalan bosgarrena. Ezordu, baina Iparraldean esaten duten moduan. 4. Egonak. Emakume-izena 5. Bizkaieraz, omen. Eguzkiak. Kontsonantea. 6. Begiradak. Gure hautemateko gaitasunean halako nahasmenak sorrarazten dituen gaia. 7. Nagusiki kafea eta halakoak hartzeko ostata. 8. Oxigenoaren ikur kimikoa. Beldur handi. Ez argi. 9. Lasaitu, askatu. Bokal errepikatua. 10. Ate hitz elkarteetan. Tolosako auzoa.

Goitik behera

1. ...egin, piper egin, eskolara ez joan. 2. Zirrara. Kanpo, landa. 3. Zer modutan? Horretan-eta itsastan den orri handia, zer-baiten berri ematen duena. 4. Gramoaren laburdura. Neke handia sorrarazten duena. 5. Pluralean, azalera unitatea. Hodi. 6. Elkarte bateko kide. Oinarrizko edari. 7. Zoro. Gauzez jabetzeko ahalmen handia dutenez esaten da. 8. Ipar Euskal Herian, barraskilo, barakuilu. Iodoaren ikur kimikoa. 9. Entzuteko moduan. Ilun denean. 10. Emakume izena. Nauka.

Soluzioa

N	Z	I	K	R	U	V	I	V	
V	V	V	U	L	V	X	V	7	
N	U	7	I		U	Z	I	O	
V	I	9	E	L	E	J	V	X	
V	9	O	R	O	K	A	O	S	
R		X	V	I	K	E	I	E	
V	N	V	K	V	N	Z	I		
N	E	R	Z	O	E	7	O	S	
I	Z	V	R	V	R	O	W	V	
V	K	O	A	B	E	R	E	S	

ez horren gaztetxoak < bilatu eta irabazi > gaztetxoak

Nork osatu du  
Uribe Kostako  
Bertsolaritza  
(1900-1980)  
Iana?

> Aurrekoaren erantzuna: Areetako Kale Nagusia  
> Irabazlea: **Ez dago irabazlerik**  
\*deitu telefonoz: 944 911 337

SARIA **Zaindu** Osteopatia-Fisioterapia **zaindu** Esku Terapia Zentrua  
Doctor Landa 4, SOPELA.  
Tel: 94 602 67 79

Zertan egin zuten desafio mundiala Sopelan?

- **Idi-probatan**
- **Lasto-altxatzean**
- **Txinga erutean**

> Aurrekoaren erantzuna: 100dik behera  
> Irabazlea: **Amaiur Lozano\***  
\*deitu telefonoz: 944 911 337

SARIA **berria**  
Atxagaren 'Astakiloen abenturak' ipuin bilduma



TXOMIN ETXEANDIAK UTZITAKO ARGAZKIA

Bittor Egurrola

**EL PINO (HEZETASUNA AUZOA), 1974**

**Pinutzar** baten omenez hartu ei zuen Hezetasuna auzoko El Pino guneak izena. Horren albotik, han jokatzen zutenek ere futbol taldeari izen bera ipini zioten. La Campa del Burron jokatzen zituzten partidak, gaur egun San Nikolas ikastola dagoen lekuan. Uribe Kostako hainbat herriren arteko futbol amateurko txapelketan parte hartzen zuen taldeak eta 1974an hartan Txomin Etxeandia zen taldeko entrenatzailea. Orduko jokalaria eta argazkian agertzen den Patxi Bilbaok akorduan dauka taldearen kirol-kamisetan ikurriña zerametela. Eta Bilbaok eta Etxeandiak ere gogoan dute Neguritik etortzen zen Endika Gorrotxena gaztetxoaren aurka jokatzen zutela, gerora Athletic-eko jokalaria izan zenaren hasierako jaurtiketen lekuko izan zirela El Pino-koak... o

**Zutunik:** Vicente Angulo, Anselmo Bidegorri, Anton Sagasti, Jose A. Gallego, Iñigo Bilbao, Iñaki Urbarri, Jose M. Izagirre, Txomin Etxeandia  
**Makurtuta:** Jose Ramon Bilbao, Luis Ugarte, Patxi Bilbao, Joseba Bilbao, Fernando Angulo, Juan C. Bilbao eta Iñigo Bilbao.

**ODEI BARROSO** > bertsolaria

# “Kotxean edo dutxan joaten dira bertso onenak”

Testua: **Nerea Guijarrubia**



**Defini egizu zeure burua berba bitan.**

Ni neu.

**Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?**

Gidoirik gabeko filmeren batean!

**Badakazu ohitura txarren bat?**

Bat bakarra balitz... bizio anitz!

**Zer barik ezin zaitezke bizi?**

Maite ditudan maitasunik gabe.

**Eta aitor dezakezun bizio bat?**

Musika, bertsolaritza...

**Zerk emoten dizu beldurra?**

Gehiegizko ausardiak.

**Zer edo nor eroango zenuke irla isolatu batera?**

Materialista hutsa den norbait, espiritualitateaz ikas dezan.

**Gorrote duzun topikoa**

Gizonezko guztiak berdina zarete...

**Non gura zenuke egin bertso-saio bat. Zergatik?**

Kotxean edo dutxan... bertso onenak hor joaten dira.

**Animalia izango bazina, zein izango zinateke?**

Txoria. Aske bezain mesfidati. Ez naiz gizakiaz fidatzen...

**Zein da zure ametsetako bat?**

Mundutik joan zaizkigun maiteekin berriro bizitza konpartitzea.

**Eguna ala gaua?**

Eguna eta gaua, batak bestera eramaten zaitu, bata bestearen parte da; biak baloratzen ditut. Batean bakarrik bizi denak ez du asko biziko.

**Inoiz jarri dizuten gairik arraroena?**

Zu, Odei, pailazoa zara... Eta orain gaia jarriko dizut. o

**LABURREAN**—Odei Barrosorenak (Barakaldo, 1988) dira oraingo aitormenak. Bizkaitarra da jaiotzez, baina Urruñan hazi eta bizi izan da. Gaur egun, bertsolaritza-irakasle lan egiten du Ipar Euskal Herriko eskoletan. Besteak beste, 2008an Iparraldeko Bertsolari Txapelketan finalista izan zen; 2010ean, ostera, bigarren lotu zen. Horrez gainera, 2011ko Lizardi saria irabazi zuen, baita 2012ko Erriarraitz saria ere. Bertsogintza-munduan urratsak egin ez ezik, musikagintzan ere aritzera ausartu da Barroso; hala, Algortako Gorka Rodriguezegaz eta Jo-gaz batera 2zio hip-hop taldeko kide da. Eta orain dela hil batzuk, lehenengo diskoa kaleratu dute: *Pausuz Pausu*. Horrenbestez, hitza lagun, kantuan dabil beti.

Irudien eta hizkien hizkuntzetan oinarrituta, Argi Hizkiak lehiaketa antolatu dugu Uribe Kostan. Argi Hizkiak testu laburren euskarazko literatura-lehiaketa da.

'Fotografia' edo 'argazki' berbek "argiarekin marraztea edo idaztea" dute jatorrizko esangura. Horrenbestez, zuen begiradek argien eta hizkien hizkuntzekin jolastea proposatzen dizuegu.

## ARGI HIZKIAK

### Argazkietan oinarritutako TESTU LABURREN II. LEHIAKETA

**LEHIAKETAREN EZAUGARRIAK**  
16 urtetik gorako edonork parte har dezake.  
Testu bakoitza argazkietako batean egongo da oinarrituta, eta egileak adierazi beharko du zein den aukeratu duena (argazkiaren edo argazkilaria izenak idatzita).  
Testuek euskaraz idatzita egon behar dute, euskara batuan edo euskalkitan.  
Edozein testu mota onartuko da (prosa, olerkia, bertsoa, haikua e.a.).  
sms, whatsapp edo posta elektronikoz bidaliko dira testuak: argi.hizkiak@gmail.com • 619 935 541

Bi kategoria izango ditu lehiaketak:  
**Labur-laburra:** 160 karaktere gehienez.  
**Laburra:** 100 hitz gehienez.

**ARGAZKIAK IKUSTEKO ETA LEHIAKETAREN OINARRIAK**  
www.egizu.org/literatura/argi-hizkiak/  
info+: argi.hizkiak@gmail.com • 619 935 541

**EPEA**  
**Maiatzaren 1etik maiatzaren 31ra bitartean** (biak barne).

**egizu!**

**uk**  
URIBE KOSTAKO  
ALDIZKARIA

GET TO PHOTO, EUSKARA BIZI, aitxu!, BERBALAMINE, berbotz, herba lagun, E! Eranditza, Berango 21, Leioa, URIBE KOSTAKO, URIBE KOSTAKO

¿Zure ortua eduki nahi duzu?



- > Naturaz erraztasun osoz gozatzeko lursail txiki bat erabili ahalko duzu
- > Zure barazkiak eta ortuariak landatu eta zaindu ahalko dituzu profesionalen aholku-laguntzarekin modu osasuntsu, eroso eta ekologikoan



LURSAIL BERRIEN  
SUSTAPENAREKIN ETA  
ERRESERBAREKIN HASI GARA

**SOPELAN**



Zure ortuaren erreserba  
orain egiten baduzu

DOAN izango duzu  
eskaintzen dugun

**ORTU-EKOLOGIKOEN IKASTAROA**

**LURSAILAK ERABILGARRI ERANDION ETA GORLIZEN**

**50€ BAKARRIK HILEAN** zerbitzu guztiak barne: lurra ongarritu eta prestatzea, ureztatzea, lan-tresnak, kutxa e.a.

**BANAKAKO HITZORDUAK** | Tel: 609 19 92 17 | [huertasludicas@gmail.com](mailto:huertasludicas@gmail.com)

[www.huertasludicas.es](http://www.huertasludicas.es)